

## 1. MATERIA BIZIA


**Bioelementuak** materia bizian aurkitzen diren elementu kimikoak dira. Gure gorputzaren zati handiena.

- **1. Mailakoak:** %98 -tik gora, ezinbestekoak dira biomolekula organikoak eratzeko, CHONPS.
- **2. Mailakoak, ionikoak:** %2, gatzetatik lortutakoak. Hainbat erreakziotan parte hartzen dute. Funtzio garrantzitsua dute ( $\text{Na}^+/\text{K}^+$  ponpa).
- **Oligoelementuak:** %0,1, beharrezkoak Fe, ez beharrezkoak Mg, K (metabolismoan lagundu). Hauen gabezia edo gehiegikeriagatik gaixotasunak edo intoxikazioak sor daitezke.

Oinarritzko bioelementua **karbonoa**.

- Lotura egonkorak (azken mailan 4 elektroituak)
- Lotura kobalenteak
- Molekulak eratzeko erraztasuna
- Adarkatzeko gaitasuna (kate lineal eta zirkularrak)
- Atomo txikia

Biomolekula **ez-organikoak:**



**URA:** Molekula angeluarra eta polarra da, karga elektrikoak ez daude uniformeki banatuta.

- **Hidrogeno zubiak:** ur molekulen arteko loturak dira, kontrako kargek elkar erakartzen dute.

- $4^\circ\text{C}$  -tan ur molekula bakoitzak 4 lotura (hidrogeno zubi) eratzen ditu.

- Hidrogeno zubiak dira urak propietate bereziak izatearen arrazoiak.

- Uraren **propietate** fisiko-kimikoak:

- **1. Ahalmen disolbatzaile handia:** disolbatzaile unibertsal bezala hartzen da.

Funtzioak: - Elikagai eta hondakinak odolaren bidez garraiatu

- Metabolismoko erreakzioetan parte hartu (glukegenoa azukre bilakatu muskuluetarako)

Disolbatzeko moduak:

- Solbatazio ionikoa: Ura molekulen artean sartzen da beraien arteko erakarpen-indarra indargabetuz (solbatatu = indargabetu). Oxigenoak ioi positiboekin elkartzen dira eta H -ak negatiboekin (ioien kargaren arabera da +/-)

- Molekula polarrekin ( $\text{OH}^-$ ): Azukreak adibidez, oso disolbagarriak dira talde polar asko dituztelako.  $\text{OH}^-$  taldeak H molekulekin H zubiak eratzen dituzte substantziak disolbatuz.

- Molekula anfi-patikoak: Buru polar (hidrofilo) eta isats apolarrez (hidrofobo) osatuta daude. H -ak buru polarraren eta  $\text{OH}^-$  taldeekin eratzen ditu H zubiak, eta alde hidrofoboa barrurantz begira geratzen da, mizela egitura sortuz. Partzialki disolbatzen da.

- **2. Bero espezifiko handia:**

Def: Likido baten gramo baten  $1^\circ\text{C}$  igotzeko behar den beroa.

Urak bero espezifiko handia du H zubiei esker. Lehenengo beroa H zubiak apurtzeko erabiltzen da eta gero tenperatura igotzeko eta alderantziz.

Funtzioa: tenperatura erregulatzea (izerdi bidez beroa kanporatu)

\* Itsasoko urari tenperaturaz aldatzea kosta egiten zaio

### 3. Molekulen arteko kohesioa eta atxikidura:

Kohesioa ur molekulen arteko ekarpena da, H zubiak eratzeko gaitasunari esker urak kohesio handia du.

Atxikidura, ur molekulak beste molekula polar batzuen erakarpenez H zubiak sortzeko gaitasuna.

Bi hauen bitartez izerdi gordina xileman gora igo daiteke (kapilaritatea), ur molekulak xilemako paretari atxikituz eta gero kohesioz gorantz eginez.

Gainazal tentsioa sortzen da, aireak egiten duen presioak ur molekula konprimitu eta H zubiak egonkortzen direlako.

- Intsektu batzuk uraren gainean ibili daitezke hondoratu gabe.

- Biriketako pleura erregulatuta mantentzeko gainazal tentsioa dago.

### 4. Erreaktibotasun kimikoa. Ionizatze joera:

Ura molekula anfoteroa da, hidrogenoak eman eta jaso ditzake, OH<sup>-</sup> anioiak (hidroxilo) eta H<sub>3</sub>O<sup>+</sup> katioiak (hidronio) sortuz.



Funtzioa: Hainbat erreakziotan parte hartu.

### 5. Dentsitate irregularra:

Tenperatura jeitsi → Dentsitatea igo

4°C -tan baliorik handiena, molekula bakoitzak 4 lotura.

Funtzioa: Laku eta ozeano izoztuen azpian bizia izatea ahalbidetzen du, izotzak ur likidoa isolatzen duenez 0°C -tik gora egongo delako barruan bizia ahalbidetuz.

### GATZ MINERALAK:

1. **Disolbaezinak:** Egituraketa funtzioa. Metatuta eta solidifikatuta egoten dira, eskeletoa.
2. **Disolbagarriak:** Forma ionikoan agertzen dira.

Funtzioak:

- Tanpoi-sistemeekin, PH-aren aldaketak kontrolatu.

- Makromolekulen kargak neutralizatu (=)

- Prozesu fisiologikoak: entzimak aktibatu, muskuluen uzkurdura, nerbio-bulkada transmititu...

### \* AZIDO BASE OREKA:

PH -a neutroa izango da hidronio (H<sub>3</sub>O<sup>+</sup>) eta hidroxilo (OH<sup>-</sup>) ioien kontzentrazio berdina denean.

Hidroxilo kontzentrazioa handiagoa denean, PH basikoa (7-14).

Hidronio " " " " " azidoa (0-7).

Disoluzio indargetzaileak, tanpoiak/buffer -ak. eskualde edo funtzio bakoitzak PH jakin bat du prozesua ondo emateko, eta hauek PH hori erregulatzen dute.


#### 1. Bikarbonato tanpoia:

- PH -a azidoagoa bada (H<sub>3</sub>O<sup>+</sup> gehiegi):


Hidronio ioia bikarbonato ioiekin (HCO<sub>3</sub><sup>-</sup>) erreakzionatzen dute azido karbonikoa (H<sub>2</sub>CO<sub>3</sub>) eta ura sortuz, gero CO<sub>2</sub> eta 2 H<sub>2</sub>O bihurtuko dena.

- PH -a basikoegia bada (OH<sup>-</sup> gehiegi):

CO<sub>2</sub> -ak eta ur molekula erreakzionatzen azido karbonikoa sartzen da, honek beste ur molekula batekin erreakzionatu dezan eta hidronio ioi bat eta bikarbonato ioi bat sortu ditzan.



## 2. Fosfato tanpoia:



### \* INGURUNE ZELULARRA ETA OSMOSIA:

**Disoluzioak**, nahaste homogeneousak dira. Disolbagarria (ura) eta solutua daude, ez dute argia barreiatzen, nahastea gardena da.

**Dispertsio koloidala**, solutua disolbagarria ez denean. Argia barreiatzeko gaitasuna dute. 2 egoeratan egon daitezke.

- Sol: forma jariakorra (likidoa).
- Gel: ura galtzen duenean.

Solutu partikulek duten higiduraren arabera:

1. Difusioa: Disolbatutako partikulak dispertsio uniformeak.
2. Dialisia: Partikulak mintz baten bidez banatuta tamainaren arabera.
3. Osmosia: Urak mintz erdi-iragazkorra zeharkatzen du kontzentrazioak berdintzeko.

**Osmosia:** 2 eskualdetako kontzentrazioa maila berean jartzen dituen fenomeno da. Ura inguru hipotonikotik hipertontikora pasatzen da.



Ingurune isotonikoa: kontzentrazio bera alde bietan (=).

“ hipotonikoa: “ txikiko eskualdea.  
 “ hipertontikoa: “ handiko “ .

Zelula ingurune hipertontikoan badago, ura irtetzen da zelula deshidratatuz, plasmolisia.

Zelula ingurune hipertontikoan badago, ura sartzen da, animali zeluletan lehertzeko aukera dago (lisia) eta landare zeluletan ez da lehertzen paretak uzten ez diolako, turgentzia.

\* Landare zeluletan paretari hanpadura presioa egiten dio, horrela landareari hazten lagunduz.



## 2. GLUZIDOAK

### Ezaugarriak:

- CHO -z osaturik 1-2-1 proportzioan (CH<sub>2</sub>O)<sub>n</sub>.
- 3-7 C bitarteko kateak, ugariak 5-6 C.
- Talde funtzionala, aldehido edo zetona (CHO edo CO).
- Gainerako karbonoek OH taldea dute.

1. Osak edo monosakaridoak: deskonposatu ezinak.

2. Osidoak: monosakarido deskonposatu direnak.

2.1. Holosidoak: monosakarido berdinetan deskonposatu.

2.1.1. Oligosakaridoak: 2-10 karbonotakoak, ezagunenak disakaridoak (2C).

2.1.2. Polisakaridoak: monosakarido asko.

Homopolisakaridoak → osa guztiak berdinak.

Heteropolisakaridoak → osa guztiak ez dira berdinak.

2.2. Heterosidoak: gluzido + beste izaera batekoak proteina, lipido..)

adb: Glukoproteina, glukolipido...

### **Funtzio biologikoak:**

1. Funtzio energetikoa → momentuko energia, almidoia (landareetan) eta glukogenoa (animali + muskulu eskeletikoan + gibelean gorde) (Glukosa).
2. Egitura funtzioa → zelulosa (landareetan) eta kitina (intsektuen eskeletoan).
3. Beste batzuk → odoleko koagulazioa, kartilagoan..

### **MONOSAKARIDOAK:**

#### **Propietateak:**

- Gozoak, zuriak (puruak) eta uretan disolbagarriak.
- Zelulen erregai energetikoa.
- OXIDAZIO-ERREDUKZIO AHALMENA (elektroiak hartu eta eman)

Aldehido muturrak elektroiak hartzeko joera du, erreduzitzeko joera (erreduzitzen denean, muturra azido karboxiliko bihurtzen da), horrela metabolismoko erreakzio askotan, oxidatu eta beste molekula/substantzia batzuk erreduzitzeko ahalmena du.

**Isomeria:** Isomeroak forma molekular bereko baina egitura desberdineko konposatuak dira (aldehido/zetona).

1. Funtzio isomeroa: talde funtzional desberdina.
2. Isomeria optikoa: argi polarizatuaren aurrean molekulak norantza biratzen duen. Azkenengo C asimetrikoari begiratu behar zaio D (OH<sup>-</sup> eskuman) edo L isomeroa (OH<sup>-</sup> ezkerrean) den jakiteko.
3. Espazio ismeria: Estereoisomeria: molekulak espazioan hartzen duten kokapena (2<sup>n</sup> molekula batek sortu ahal dituen isomero kopurua).
  - a. Molekula bateko C asimetrikoak ispiluak direnean: enantiomeroak.
  - b. C asimetriko bateko OH talde bat aldatuta dagoenena: epimeroak.

**Egitura:** Kate lineal bat izan beharrean, uretan disolbatzean ziklatu egiten dira.


- Loturak sortzeko erreztasun handiagoa dute horrela → beraz, erreaktiboagoak dira.

### **Harworth -en proiektzioa:**

Glukosa baten kasuan:

1. Molekula planoan proiektatu.
2. Tolestu eta hexagonoa egiten da OH<sup>-</sup> -en posizioa mantenduz.
3. C<sub>5</sub>, OH eta H<sup>-</sup> -ak eta C<sub>6</sub> -ko CH<sub>2</sub>OH<sup>-</sup> -ak erlojuaren kontrari biratzen dute. Aldehidoaren O<sup>-</sup> a C<sub>6</sub> -aren lekuan jartzen da eta OH<sup>-</sup> -a aldehidoa pasatu.
4. Bi estereoisomero berri baldintzatzen ditu. α-D-glukopiranos (OH beherantz) eta β-D-glukopiranos (OH gorantz).

5. eraketa diitzakete. anti-forma edo aulki-




Espazioan bi izan <<zis>> edo eta <<trans>> forma.

## Monosakarido nagusiak

### 1. Pentosak:


#### a) Erribosa

- Aldopentosa
- ARN nukleotidoen osagaia (nukleotidoak sortu)
- Aldehido talde bakarra du
- $\alpha$ -D-erribosa



#### b) Desoxirribosa

- Aldopentosa
- ADN nukleotidoen osagaia
- Erribosaren deribatua da (desoxiazukrea)
- Berdina, baina 2C -ko OH taldea desoxigenatuta dago
- $\alpha$ -D-desoxirribosa



### 2. Hesoxak:

#### a) Glukosa


- Aldohesoxa
- Izaki autotrofoek fotosintesian sortzen duten molekula nagusia
- Gure zeluletan momentuko energia

lortu


- $\beta$ -D-glukopiranosia

#### b) Galaktosa



- Aldohesoxa
- Disakaridotan ageri da normalean (laktosan) (landareen pareteko pektinan)
- \*3 eta 4.C -ko OH taldea ezkerrean
- $\beta$ -D-galaktopiranosia




D-glucosa




L-glucosa



D-Galactose




L-Galactose




#### c) Manosa


- Aldohesoxa
- Bakterio, onddo (zuhaitzen azalean)
- \*2 eta 3.C -ko OH taldea ezkerrean



D-Mannose



L-Mannose



-  $\beta$ -D-manosapiranososa


**d) Fruktosa**

- Zetohesoxa
- Frutetan egoera askean
- Sakarosa izeneko disakaridoan
- \*2.C -an zetona taldea

(ziklatzean, C anomeroa talde funtzionalaren parte

duenez, pentosa edo furano forma hartzen du)

- $\alpha$ -D-fruktopiranososa



**Monosakaridoen deribatuak:**

**1. Aminoazukreak** → OH taldea  $\text{NH}_2$  batekin ordezkatzeko denean.

Adb, glukosamina 2.OH -a →  $\text{NH}_2$ .


**2. Desoxiazukreak** → Desoxigenatu egiten dira, hau da, O bat galtzen dute.

Adb, desoxirribosa.

**3. Azukre azidoak** → Aldehido

da oxidazioz.

Adb, azido glukuronikoa.



taldea karboxilo mutur bihurtzen

**OSIDOAK:**

**Disakaridoak:** 2 monosakarido

**Propietateak:** Hidrolizagarriak, zapore gozak, kristal bihurtzeko modukoak eta uretan disolbagarriak.


- O glukosidiko loturaz lotzen dira (2 OH taldek erreakzionatu, ur molekula ingurunera askatu eta O -ak lotura egin).

Hau askatzeko hidrolisia

1. Lotura monokarbonilikoa: loturan talde funtzional bakarrak parte hartu. Mutur erreduzitailea dute.
2. Lotura dikarbonilikoa: loturan 2 talde funtzionalek parte hartu.


**a) Maltosa**

- Monokarbonilikoa
- Glukosa + glukosa
- Erreserbazko molekula
- Almidoi eta glukegenoaren hidrolisitik
- $\alpha$ -D-glukopiranosil-(1-4)- $\alpha$ -D-glukopiranososa




**b) Isomaltosa**

- Monokarbonilikoa
- Maltosarekin desberdintasuna (1-6) lotura
- Glukosa + glukosa
- $\alpha$ -D-glukopiranosil-(1-6)- $\alpha$ -D-glukopiranososa



**c) Laktosa**

- Monokarbonilikoa
- Esnean ageri den disakaridoa



- Galaktosa + glukosa
- $\beta$ -D-galaktopiranosil-(1-4)- $\alpha$ -D-glukopiranososa

#### d) Zelobiosa

- Monokarboniliko
- Glukosa + glukosa
- Egiturazko molekula
- Zelulosaren hidrolisia

\*Maltosarengandik desberdintasuna  $\beta$


- $\beta$ -D-glukopiranosil-(1-4)- $\beta$ -D-glukopiranososa

#### e) Sakarosa

- Etxeko azukrea
- Glukosa + fruktosa ( $\alpha$ )
- $\alpha$ -D-glukopiranosil-(1-2)- $\alpha$ -D-fruktofuranosa

#### f) Sukrosa

- Sakarosaren eraldaketa sintetiko
- Glukosa + fruktosa ( $\beta$ )
- $\alpha$ -D-glukopiranosil-(1-2)- $\beta$ -D-fruktofuranosa



**Polisakaridoak:** 10 monosakarido baino gehiagoz


osaturako kate konplexuak. Lehen zituzten propietateak galdu. EZ dira uretan disolbagarria, EZ gozoak, EZTA zuriak (puruak).

- **Homopolisakaridoak:** Monomero berdinez osaturako kateak. Energia eta erreserba funtzioa dute.

→ ERRESERBAZKOAK:


#### 1. Almidoia:

- 24-30 unitateko adarkadurak.
- Landareen energia erreserba nagusia, fotosintesian sortu eta momentuan behar ez den erreserba.
- Adarkaduretan isomaltosa, beste guztia maltosa.
- Landarea gero eta zaharragoa, adarkadura/amilopektina gehiago.



#### 2. Glukogenoa:

- Animalien erreserbarako elementu nagusia.
- Gibelean eta muskulu ehunean.
- Glukosa kate luzeak, adarkaduretan isomaltosak.
- Almidoia baino adarkatuago eta konpaktuago.



→ EGITURAZKOAK:

#### 1. Zelulosa:

- Landareen zelula paretako osagai nagusia.
- Zelobiosako kateak.
- Kate linealetan eta bata bestearen gainean kokatzen dira, beraien artean H zubiak sortuz, egiturak egonkortuz.
- Zelulosa liseritzeko entzima zelulasa da (animali hausnarkariek).

#### 2. Kitina:

- Amino azukrez osatuta (glukosamina)  $\text{OH} \rightarrow \text{NH}_2$
- Artropodoen exoeskeletoan eta onddoetan.
- Txandakako geruzetan antolatuta, egonkorragoa izateko.



- **Heteropolisakaridoak:**

1. **Hemizelulosak:** Galaktosa + fruktosa, landareen paretaren osagai.
2. **Pektinak:** Azido galakturoniko osatuta beste monosakarido batzuekin tartekatuta, landareen paretetan.
3. **Agarra-agarra:** D eta L galaktosazko polimeroak, alga gorrietan.
4. **Glukosaminoglukanoak:** Azido glukuroniko + glukaminaz osatuta, zelula mintzeko glukoproteinak eratzen ditu (azido hialuronikoa, kondroitina eta heparina).

**HETEROSIDOAK:**

Zati gluzidiko eta ez gluzidikoak dute.

- a) Glukolipidoak
- b) Glukoproteinak

**3. LIPIDOAK**

CHO eta batzuetan N eta P -z (talde polarretan) osatuak.

**Ezaugarriak:**

- Uretan eta disolbatzaile polarretan ez dira disolbagarriak.
- Disolbatzaile organikoetan bai.

**Saikapena (funtzioen arabera):**

1. Energia erreserbarako lipidoak: gantz azidoak, triglizeridoak eta argizariak (erleak).
2. Egituraketa funtzioa: fosfolipidoak, esfingolipidoak (neuronak) eta esterolak.
3. Funtzio espezifikoak: hormonak, bitaminak.

**Saikapena (egitura kimikoaren arabera):**

1. Saponifikagarriak: gantz azidoak dutenak, fosfolipidoak.
2. Ez-saponifikagarriak: gantz azidorik ez dutenak, kolesterola.

**Energia erreserbarakoak:**

- Funtzio energetikoa
- Gluzidoen oxidazioan baino energia gehiago askatzen dute.
- Metaketa errazagoa: gluzidoek baino bolumen eta pisu gutxiago dute, urik gabe metatzen direlako.
- Glukosa gantz bihurtzen da errazago metatzeko.

**Gantz azidoak: (CHO)**

**Aseak:**



- Talde funtzionala: karboxilo muturra
- Karbono kate luzea.
- Lotura sinpleak

- Talde funtzionala: karboxilo muturra.

- Karbono kate luzea.

-Gutxienez lotura bikoitz bat (gehiago izan ditzake).

**Asegabeak:**



**Propietateak:**

- Disolbagarritasuna → (alde polarra) Zenbat eta karbono kate (C) laburragoa eta lotura bikoitz gehiago, orduan eta disolbarriagoa da.



- **Fusio puntua edo urtze tenperatura** → Aseak urtze tenperatura altuagoa dute, ez dutelako lotura bikoitzik. Egonkortasun handiagoa, lotura sinpleagatik. Asegabeak, urtze tenperatura baxuagoa dute, lotura bikoitzak dituztelako.
- **Isomeroak** → Asegabeetan lotura bikoitzak izateak karbonoak espazioan biratzeko ahalmena ematen du, ondorioz errazago metabolizatzen dira isomero horiei esker, errektiboagoak dira.
- **Taldekatzeko joera** → Aseak asegabeek baino leku gutxiago okupatzen dute, beraz errazago metatzen dira. Horrela, asegabeak lehenago erretzen ditu gorputzak.

\*Gantz aseak lotura ahulak (Van der Waals -en indarrak) sortzen dituzte eta solido izateko joera dute giro-tenperaturan. Indar asko batuta, lotura egonkorra.

### TRIAZILGLIZERIDOAK:


#### Funtzioak:

- Energia-erreserba → Animalietan, gantz ehunetan (adipozitoak, gantzez beteriko zelulak). Landareetan, fruitu zein hazien zelulen bakuoloetan.
- Isolamendu termikoa → (gantzek gorputzeko beroari ez dio pasatzen uzten)
- Babes mekanikoa → (zauriak)

-Giro tenperaturan...

- Likidoak, olioak (gantz azido asegabeak)

- Solidoak, gurina ( “ “ aseak)



Glizerina + 3 gantz azido

- Ester loturak sortzea → Esterifikazioa: glizerinako OH taldeak gantz azidoko karboxilo muturreko OH taldeak erreazionatzen dute  $H_2O$  askatuz eta O baten bidez ester lotura sortuz.

Hau askatzeko → Hidrolisia: Ur molekula bat ester loturan sartzen da, glizerina eta gantz azidoa banatuz, hau gertatzen da gantz bat erre nahi denean.

#### Propietateak:

- Disolbagarritasuna: Ez dira disolbagarriak ez dutelako OH talde askerik.
- Fusio puntua: Gantz azidoen, karbonoen eta loturen menpe.

**Triazilglizeridoen hidrolisia:**

1. Entzimatikoa: Lipasa entzimak (pankreasean ekoiztu) katalizatzen dute ester loturaren apurketa.
2. Kimikoa: Saponifikazioa. Base batekin elkartzen da (NaOH/KOH) eta berotzean glizerina (OH) eta gatzak/xaboiak (Na/K) sortzen da.

**ARGIZARIAK edo ZERIDOAK:**

Kate luzeko gantz azidoa + kate luzeko monoalkohola.




**Propietateak:** Ez dira disolbagarriak uretan eta solidoak izan ohi dira.

**Funtzioak:**

- Iragazkaitz funtzioa (fruitu, hosto, lumak, larruzala)
- Babes funtzioa (belarriak)
- Egituraketa funtzioa (erleak)

**Fosfolipidoak:** gantz azidoa (1 edo 2) + alkohola + azido fosforikoa + amino alkohola

- 1+2 → Buru polarra                      2-3, 3-4 → Ester lotura                      4 → Gantz azidoa
- 1-2 → Fosfodiester lotura              3 → Glizerina                                      3+4 → Isats apolarra
- Fosfolizeridoak →



- |                |  |                                  |
|----------------|--|----------------------------------|
| 1. Kolina      | $CH_3$<br>- O - CH <sub>2</sub> - CH <sub>2</sub> - N <sup>+</sup> - CH <sub>3</sub> | Lotura bakoitzean metil 1        |
| 2. Etanolamina | $CH_3$<br>- O - CH <sub>2</sub> - CH <sub>2</sub> - NH <sub>3</sub> <sup>+</sup>     | Amina taldea                     |
| 3. Serina      | $NH_3^+$ O<br>- O - CH <sub>2</sub> - CH - C - OH                                    | Karboxilo muturra + amina taldea |
- Molekula liposomak eta



anfipatikoak: Mizelak, bigeruzak lipidikoak sortu.

Buru hidrofiloa urarekin kontaktuan eta isats hidrofoboak elkarri begira. Zeluletan mizela egitura bikoitza sortzen da, bai kanpo ingurunean eta bai barnealdean ura dagoelako.

### Esfingolipidoak:


Zeramida + X talde polarra

Esfingosina + gantz azidoa Kolina edo etanolamina

- Disolbagarritasuna talde polarrak ematen dio

Fosfolipidoetatik bereizteko, amida taldea duen erreparatu behar dugu.

$\text{NH}_2 + \text{COOH} \rightarrow \text{N} - \text{C} -$  N-a lotura egiten



**Esfingomielina:** Neuronetako mielina zorroetan dauden esfingolipidoak.

Gantz azidoa + esfingosina + azido fosforikoa + aminoalkohola

Zeramida X talde polarra

**Glukolipidoak:** Zeramida + gluzidoa

- Zelularen mintz plasmaticoan molekulen identifikazioa burutzen dute.

- Zerebrosidoak: Azukre bakarra dute, ordezkapen taldearen glukosa eta galaktosa izaten dute zermidari lotuta.
- Gangliosidoak: Ordezkapen taldean oligosakaridoa dago zeramidari lotuta. Hexosen deribatuak eta sarritan adarkatuak izaten dira. batez ere, burmuineko mintzetan ageri dira.

### Esterolak:

- Ez-saponifikagarriak (gantz azidorik ez), kolesterola (animalietan), estigmasterola (landareetan), egosterola (onddoetan).

Kolesterola →

### Funtzioak:


- Hormonak sortzeko ezinbestekoa (hormonen egituraketa)
- Zelularen mintzean jariakortasuna erregulatu ez oso likido, ez oso solido)
- Gantzak liseritzeko behazun azidoa sintetizatu (gibelean gordeta)
- D bitamina ekoiztu, Ca eta P -ren xurgapena erraztu.

### Propietateak:

- Disolbagarritasuna A eraztuneko OH taldeari esker, oso txikia, ia nulua.

R talde aldakorra → Honen

arabera sortzen dira hormona,



oso

D bitamina... bakoitza.

Kolesterola ez denez disolbagarria, proteinen bidez garraiatzen da odolean zehar, lipoproteinak.

1. **HDL** (high density lipoprotein): kolesterol "ona".

Genetikoki markatuta datorren kolesterola, gehiegizko kolesterola garbitzen du gibelera garraiatuz bertan liseritu dadin. Kolesterol hau altu daukagunean, ez dira arteriak taponatzen, garbitu baizik.

2. **LDL** (low density lipoprotein): kolesterol "txarra" (asko ilatzen bada).

Kolesterola gibeletik hormona zentroetara eta alderantziz garraiatzeko. Asko badago, odol hodietan pilatzen da ateroma plakak sorraraziz eta gaixotasun kardiobaskularrak eraginez. \*Hiperkolesterolemia eragileak (arterosklerosia)

Genetikoak → -Zelula mailako LDL errezeptoreak ez dira efikazak eta ezin dute LDL -a odoletik kanporatu.

- Gaixotasun hereditarioa da.

Dietarekin lotutakoak → - Dietan kolesterol asko hartu (okela, enbutido, gauza industrialak) edota kirol gutxi egiteak LDL -a areagotzen du. Ez da odoletik ezabatzen eta pilatu egiten da.


### Beste funtzio batzuk:

- Terpenoak: Ez-saponifikagarriak
  - Bitamina liposolugarriak sortu, mota desberdinak karbono kopuruaren arabera. Adb, A bitamina azenarioan (karotenoa).

- Esteroideak: Hormona esteroideak

- Estrogenoa:

Obozitoen (obuluaren aintzindariaren) heltze prozesua  
Emeen ezaugarri sexualen garapena (hilekoa)



- Progesterona:


Uteroa prestatzen du haurdunaldirako

- Prostaglandinak:

- Lipidoetatik eratorriak
- Muskulu ehunen uzkurdua kontrolatu
- Mukosen funtzionamendua kontrolatu
- Defentsa sistema kontrolatu
- Inflamazioa aktibatu (sukarra, mina..)

- Bitamina liposolugarriak:

- A bitamina: ikusmenaren pigmentua eta baita azalarena.
- D bitamina: kaltzio eta fosforo xurgapena hezurretan.




## 4. PROTEINAK


### AMINOAZIDOAK:

Osaera:

- C asimetrikoa
- COOH muturra (karboxilo)
- NH<sub>2</sub> " (amina)
- R talde aldakorra (20 desberdin)



L



D


→ 20 aminoazido desberdin)

**Propietateak:**

- Disolbagarriak dira amina eta karboxilo muturragatik, R taldea polarra bada, are gehiago.
- Kolore gabekoak
- Masa molekular txikia
- Esteroisomeriarako joera, C asimetrikoagatik isomeria optikoa edo ispilu irudia sortzeko gaitasuna, baina argi polarizatuaren aurrean ezkerrera biratu (L)
- Kristalizatu egiten dira
- Fusio puntu altua
- Anfoteroak, azido edo base moduan jokatu dezakete

erreakzioetan


- Base denean, H -ak hartu.  $NH_2 \rightarrow NH_3^+$
- Azido denean, H -ak eman.  $COOH \rightarrow$




COO<sup>-</sup>

**Sailkapena:** R taldearen arabera.


1. Aromatikoa → Eratzun forma, ez dira polarrak
2. Apolarrak →
3. Kargarik gabeko talde polarra →
4. Karga positibodun talde polarrak →
5. Karga negatibodun talde polarrak →




- Puntu isoelektrikoa: PH -a azido , base edo neutro izan, aminoazidoek joera bat edo beste hartuko dute. Puntu isoelektrikoa dagoen ingurunearen eta R taldearen arabera da. Aminoazido bat bere PH neutroan dagoenean, puntu isoelektrikoa dagoela esaten da.



Ingurunea azidoa denean aminoazido batentzat, H<sup>+</sup> -ak hartzeko joera du. Ingurune horretan H<sub>3</sub>O<sup>+</sup> asko daudenez, H<sup>+</sup> -ak hartzen ditu, puntu isoelektrikoa jeitsi egiten da.




Ingurunea basikoa denean, hau da, OH<sup>-</sup> kontzentrazioa handia denean, H<sup>+</sup> -ak askatzeko joera du, puntu isoelektrikoa igo egiten da.



**PROTEINAK:**

**Egitura:**



- **Primarioa** → Lotura peptidiko lotutako aminoazido sekuentzia lineala (ez da funtzionala).

Lotura peptidikoak ez du errotazio askatasunik, baina C asimetriko bat COOH C-arekin edo NH<sub>2</sub> -ko N -arekin lotzean errotazio askatasuna lortzen dute (+ H<sub>2</sub>O askatu). Horrela kateko beste molekula batzuekin lotura ahulak sortu ditzakete.

- **Sekundarioa** → Aminoazido katea bere baitan tolesten da.

**α helizea:** Modu helikoidalean kiribiltzen da, buelta bakoitzean 3,5 aa daude gutxi gorabehera. Erakarpin indar ahulak (H zubiak) sortzen dira, helizeari egonkortasuna emanez. Gehienetan ez dira funtzionalak (keratina salbuespena da, ile eta atzazkaletan). β orria baino konplexuagoa da.

**β orria:** katea sigi-sagan tolesten da. Kateak bata bestearen gainean kokatzen dira lotura intermolekular ahulak sortuz. Ez dago forma honetako proteina funtzionalik.

- **Tertziarioa** → α eta β egiturak beraien artean konbinatu eta makromolekula konplexuak sortzen dira, beraien artean H zubi eta disulfuro zubiak sortuz, eta egiturak egonkortuz eta funtzionalitatea sortuz.

**Globularrak:** Egitura sekundarioak tolestean forma tridimentsional trinko nahiko esferikoa hartzen du. Disolbagarriak dira eta funtzioa dinamikoak dituzte. Proteina gehienak horrelako konormazioa dute.

**Zuntzekoak:** Egitura funtzioa dute, mekanikoki erresistenteagoak eta disolbaezinak dira lotura zurrinak dituztelako, eta erresistentzia handia behar den ehunetan egoten dira (muskuluetan).

- **Kuaternarioa** → 3. mailako proteina bat baino gehiago elkartuta (normalean egitura globularrekin).


Funtzio oso garrantzitsuak betetzen dituzte:h

- Hemoglobina (O odolean garraiatu).
- Intsulina (azukrea erregulatu).

**Propietateak:**

**BIOLOGIAKO DOGMA ZENTRALA:** ADN -aren informazio genetikoak markazten du proteinak nolakoak izango duen. Bakoitzak ADN desberdina → proteina desberdinak.

- Funtzio oso espezifikoa dute (ADN -aren menpe dagoelako).



- Disolbagarriak dira
  - Uretan  $\text{NH}_3^+$  eta  $\text{COO}^-$  bilakatu.
  - Molekula anfoteroak dira, azido edo base moduan jokatzeko dute.
- Desnaturalizazioa:

Goi mailako egitura galtzen dutenean, beraien funtzio eta propietateak galtzen dituzte. Muturreko PH eta tenperaturetan desnaturalizazioa kimikoki ematen da; goi mailako egitura galtzen dute eta ondorioz, baita funtzio eta propietateak ere. (arrautza frijitua)  
Desnaturalizazioa mekanikoki/fisikoki ere eman daiteke, adibidez arrautza irabiaraztekoan. Bernaturalizazioa posiblea da desnaturalizazioa txikia, geldoa eta partziala bada.

#### **Funtzioak:**

- Egituraketa: Muskulu ehunetan, kolagena hezur eta tendoietan, ilean..
- Erreserba: Oboalbumina (arrautza), kaseina (esnea)..
- Erregulazioa: Hormonak (intsulina, glukagoia)
- Katalizazioa: Entzimak
- Defentsa: Inmunoglobulina (globulu zuria)
- Garraioa: Hemoglobina, glukoproteinak..
- Uzkuerdura: Muskuluetan (aktina, miosina)

#### **Sailkapena:**

##### 4.1. Proteina konjokatuak edo heteroproteinak

Kate polipeptidikoa + talde prostetikoa (proteikoa ez dena)

- Glukoproteinak: kate polipeptidikoa + gluzidoa
- Lipoproteinak: kate polipeptidikoa + lipido
- Fosfoproteinak: kate polipeptidikoa + fosfato
- Kromoproteinak: kate polipeptidikoa + koloredun taldea

##### 4.2. Proteina bakunak edo holoproteinak

Aminoazidoz bakarrik osatutako kateak

###### a.- Globularrak:

- Albumina
- Globulinak
- Histonak eta protaminak

###### b.- Zuntzakarak

- Kolagena
- Keratina
- Elastina
- Miosina eta aktina

#### **ENTZIMAK:**

##### **Ezaugarriak:**

- Erreakzionatzen dute molekulas **SUSTRATUAK**
- Eratzen diren molekulak **PRODUKTUAK**
- Biokatalizatzaileak dira → erreakzio kimikoak bizkortzen dituzte, euren aktibazio

energia jaitziz. Inhibitzaileak ere izan daitezke, hau da, produktu bat gorputzarentzat ona ez denean erreakzioa geldotzen dute.

- Erreakzioetan erabiltzeko behar den energia aurrezten dute.

##### **Propietateak:**

Proteina guztien ezaugarriez gain...



- Jarduera katalitiko handia: erreakzioetan abiadura bizkortu eta aske gelditzen dira beste sustratu batean jarduteko.

- Espezifikotasuna: maila desberdinak daude; gero eta espezifikagoa, funtzio garrantzitsuagoa.

- PH eta tenperatura maila jakinak behar dituzte (bestela desnaturalizatu)

- Euren jarduera erregulatu daiteke.

### Izaera:

- Masa molekular handia (asko pisatu)

- Osaera kimikoaren arabera → Holoproteinak: proteina bakunak

→ Holoentzimak: zati proteikoa (apoentzima) + ez proteikoa (kofaktorea)

### loi metalikoak

(oligoelementuak)  $Fe^{+2}$ ,  $Cu^{+}$ ,  $Mg^{+2}$

- Kofaktorea, entzima eta sustratuaz erreakzioa martxan jartzeko behar da batzuetan.


Aktibo holoentzima

Apoentzimak + kofaktoreak


### Koentzima

$NAD^{+}$ ,  $FAD^{+}$  ( $e^{-}$  garraioa)

gain



### Aktibazio-energia:



- Entzimek aktibazio energia gutxitu egiten dute.

Horretarako... - Molekulek kontaktua izan behar dute.

- Kontaktuak erreakzioa sortzeko ezinbestekoa da molekulek energia nahikoa edukitzea.

- Gutxienerako energia = Aktibazio energia

\*Entzimen aktibazio katalitikoak: Erreakzio bat bideratu aktibazio maila txikiagoa erabilita.

### Gune aktiboa:

Apoentzimaren hutsunea da, sustratuaren egiturarekin bikain egokitzen dena.

Gune aktiboan 2 aa mota daude:

- Loturakoak → sustratua posizio egokian lotzea ahalbideratzen dute (talde hidrofoboek)

- Katalitikoak → 10 bat aa -z osatutako eskualdea. Sustratua produktu bihurtzearen eragileak dira (kofaktoreak badaude batera lan egin)

\*Gainontzeko aa -ek entzimaren goi mailak egitura eusten dute.

### Espezifikotasuna:

## 1. Entzimatikoa:

Entzima batek sustratuak izan ditzakeen aldaketa guztien artean aldaketa bakarra egiten du. Beste entzima batek beste erreakzio bat sortzen du sustratu berarekin.

## 2. Sustratuarekiko:

- Estereokimikoa → Isomero optikoak bereizten ditu. Absolutua baino zehatzagoa da, zis edo trans espazio konposizioa bereizteko gai da.
- Absolutua → Sustratu bakarrarekiko espezifikoa, ezta bere isomeroarekin ere ez.
- Taldekoa → Talde zehatza duen sustratuan eragin, adibidez monosakaridoak.

Funtzioen garrantziaren arabera: Estereokimikoa > Absolutua > Taldekoa

## EGOKITZE INDUZITUAREN TEORIA:

- Lehen.. Giltza eta zerraila hipotesia, kimikoki guztiz enkajutzen zutela.
- Orain.. Egokitze induzitua: sustratua gune aktibora sartu, lotura intermolekularra eratu (sustratua eta aa -n artean) eta doitu (egokitu).

## Sailkapena:

- Oxidoerreduktasak → elektroiak transferitzen dira, oxidazio-erredukzioa erreakzioa bideratzen dute. Beti kofaktore bat behar dute.


- Transferasak → talde funtzionala transferitu.
- Hidrolasak → ur molekulen bidezko hidrolisia.
- Liasak → molekula apurtzea, ur molekula gehitu gabe.
- Isomerasak → isomeroak sortu.
- Ligasak → molekula lotu.

## Entzimen zinetika:

Zenbat produktu sortzen diren denbora batean.

Sustartuaren metaketa handitu eta entzimaren metaketa iraunkor mantenduz gero, abiadura gero eta handiagoa izango da. Abiadura handitze hori esponentziala da [S] baxuetan eta handitu ahala gero eta gero eta motelagoa da.

Michaelis-Menten → Produktu maximoa lortzeko behar den sustratu kontzentrazioa.  $V = \frac{V_{max} [S]}{K_m + [S]}$



## PH eta temperaturaren eragina:

- Temperatura → erreakzioen abiadura hazi egiten da puntu optimo baterarte; hori baino altuagoa bada, entzima desnaturalizatu egin daiteke. Entzima bakoitzak tenperatura jakin bat du.

- PH -a: muturreko PH -tan desnaturalizatu egin daitezke eta 3.mailako egitura galdu.

## Inhibitzaileen efektua:

Inhibitzaileak (molekula bat), itzulgarriak:


- Leihakorra: inhibitzailea gune aktiboan sartzen da, substratuaren antzkeoak izaten dira. Gune aktiboak sartzen dira eta ez die substratuei sartzen uzten. Gune aktiboagatik kimikoki leihatzen dira. Sustratu gehiago sartuz gero, lehia substratuak irabazten du.

- Ez-leihakorra: inhibitzailea entzimaren aa gune batean lotzen da, gune modulatzaillean. Inhibitzailea bertan lotzen denean gune aktiboa kimikoki eraldatzen da, beraz gune aktiboa libre egon arren substratua ez da enkajitzen eta ez da produkturik sortzen. Inhibitzailea gune modulatzailletik kantzean gune aktiboko aa -k berriro eraldatzen dira eta substratua bertan lotu eta produktua sortu daiteke.

**Entzimen jardueraren erregulazioa:**




Entzimek substratua eta energia alferrik ez galtzeko, beharrezko produktuak bakarrik ekoizten dituzte. Hau erregulatzeko entzima alosterikoa beharrezkoa da → bide metabolikoko lehenengo entzima izaten da → dauden erreakzioetatik geldoena erregulatu du → energia gehien behar duen entzima da → erreakzio kate guztia erregulatu du.

1. erreakzioa eta substratu beste guzatzeko



guzatzeko energia nahikoa badago, erreakzioak berez dira.

“feed-back” edo atzeraelikadura (+ atzeraaktibazioa)(- atzerainhibizioa)  
 - Entzima alosterikoa: erreakzioek aktibo jarraituko dute zelularentzat produktu nahikoa sortu arte. Produktu nahikoa dagoenean, azken produktuak inhibitzaile ez-leihakor bezela jokatu du, gune modulatzailari lotuz. Produktu gehiago behar denean, azken produktua gune modulatzailetik askatzen eta erreakzioa berriro martxan hasten da behar den produktuak sortu arte.




- Koentzimak....


## 5. AZIDO

### Nukleotidoak

→



## NUKLEIKOAK



Azido fosforikoa + base nitrogenatua + fosfato taldea

- Kate oso luzeetan batzen dira ADN eta ARN -ak sortzeko.

Pentosak: Erribonukleikoa (ARN) / Desoxirribonukleikoa (ADN)

Base nitrogenatuak:


- Pirimidinikoak (eraztun bakarra) → Zitozina,

uraziloa (ARN), timina (ADN)

- Purikoak (eraztun bikoizta) → Adenina, guanina

- Fosfodiester lotura:

Nukleotido + nukleotido (3.C -ko OH -a eta 5.C -ko fosfatoko OH -ak erreakzionatu eta O bat lotura egiten geratzen da). Fosfodiester loturak sortzeko energia behar da eta energia hori 3 azido fosforikotatik 2 hidrolizatzerakoan askatzen da. Nukleotidoa azido fosforiko 1 baino gehiagorekin lotuta badago, fosforilatuta dagoela esaten da.



**ADN:**

**Egitura primarioa:**

Kate antiparaleloak eta osagarriak izango dira.

**Egitura sekundarioa (ADN):**

ADN -a ez da funtzionala kate bakarra denean.

- HELIZE BIKOITZAREN EREDUA:

-ADN -a polinukleotidoen 2 katek osatzen dute; kateak irudimenezko ardatz baten inguruan eskuinerantz biribilkaturik daude (dextrogiroa)

- Base nitorgenatuak helize bikoitzaren barruan daude eta pentosa eta azido fosforikoak kanpoan.

- Bira batean 10 pare nukleotido daude.

- Kateak antiparaleloak dira (5', 3') / (3', 5').

- Baseen arteko osagarritasuna (A-T / C-G)

\*Eredu hau Watson, Crick eta Rosaline Franklin -ek zehaztu zuten.

**Base nitrogenatuen kasuan:**




Puriko + pirimidiniko lotzen dira egitura kimikoagatik, A = T, parez pare elkartzen dira 2 talde polar dituztelako, 2 H zubi sortzen dituzte euren artean. G C parez pare lotzen dira 3 talde polar dituztelako, 3 H zubi euren artean.

### Kondentsazio mailak:

Interfase zelularrean helize bikoitz egitura izaten du. Zatiketarako prestatzeko ADN -a nukleotik irten eta korapilatzen hasten da kromosoma egitura lortu arte, bertan hain dago paketatuta zitoplasmako entzimek ere ezin dutela kaltetu.

1. Helize bikoitza, kate lineala.
2. Nukleosomak → ADN -ak bi bira ematen dizkio proteinazko egitura bakoitzari. Egitura hauek 8 histonaz osatuta (oktameroa) daude. ADN -ak birak eman ostean, histona horietako batek (9.ak) ADN -ra proteinazko egiturara finkatzen du, nukleosomak sortuz.
3. Perla lepokoa → Nukleosomen goi mailako egiturak dira, nukleosomak lotzen dituen kate bat.
4. Egitura solenoidala → Egitua konplexuagoa.
5. Superbiribilketa → Egitua konplexuagoa.
6. Arrosetoia → Egitua konplexuagoa.
7. Kromosoma → Egitura konplexuena. Informazio, zelula eta ondorengo berriak sortzeko guztiz beharrezkoa.



### Desnaturalizazioa:

Funtzionala da helize bikoitz forman. Muturretako tenperatura eta PH-tan H zubiak apurtu, egitura desedituratu eta desnaturalizatu egiten dira. Desnaturalizazioa bortitza izan bada, zailagoa da berriro lehengo egiturara bueltatzea. Leuna izan bada, base osagarritasun legeari jarraituz berri sortuko da lehengo egitura.

### ADN -aren funtzioak:

- Informazioa gordetzea (genetikoa).
- Informazioa belaunaldiz belaunaldi transmititzea.

### ARN:

#### Egitura:

ADN -a oinarri hartuta 3 molekula sor daitezke, bakoitza funtzio zehatz batekin.

1. ARN mezularia (ARNm) %5
2. ARN garraiatzailea / transferentea (ARNt) %15
3. ARN erribosomikoa (ARNr) %75

Funtzio komuna:  
**PROTEINEN  
 SINTESIA**

Erribonukleotidoz osatutako kate bakarra da.

### Proteinen sintesia:

Zitoplasman dauden erribosomen funtzioa proteinen sintesia egitea da; horretarako ADN-aren informazioa behar da eta ADN -a zitoplasmara atera ezin denez, honen informazioa ARNm egiturara transkribatzen da.

ADN -aren harizpi bat moldetzat hartuta, ARN polimerasak transkripzioa egiten du, ARNm ekoiztuz.

ARNm -a zitoplasmara irtetzen da, eta erribosoma barruan dagoen ARNt -k mezua / informazioa aa -etara itzultzen du.

- ARNt -ko antikodonak nukleotido sekuentzia irakurtzen du, kodonka. Kode genetikoari jarraituz kodonaren osagarria den aa -tara itzultzen ditu.

- Proteina guztietako lehenengo aa AUG kodonak determinatzen ditu, honek ematen dio ARNm -aren itzulpenari hasiera. UAA, UAG eta UGA kodonek amaiera ematen die proteinen sintesiari.

- Katearen aldeetan funtzionala ez diren informazio gehigarria dago, hauek aldeetan daude zitoplasmako entzimek ADN -aren informazioa ez kaltetzeko.

- 4 base nitrogenatu daudenez eta kodonak hiruak irakurtzen direnez,  $4^3=64$  aa, baina ezinezkoa da 20 aa desberdin baitaude soilik. Kode genetikoak degeneratuta dago.

### Funtzio berezidun nukleotidoak:

- Energia handikoak → Adenosintrifosfata ATP

- Funtzio energetikoa, bitartekari metabolikoa eta zelulako energia garraiatzen dute.

- Fosfato talde bat askatzean (ATP → ADP) loturan egon den energia askatzen da.

- Kofaktoreak → Entzimen kofaktoreak dira, oxidatzeko eta oxidatzeko (erredox,  $e^-$  emon / jaso) ahalmena dutenez elektroiak garraiatzen dituzte.

Funtzio katalizatzailea dute.

- Bitartekariak → AMP ziklikoa, adenosin monofosfata ziklatuta 2. mailako errezeptore gisa jokatzen du, zelulan sartzen diren molekulen 2. identifikazioa egiten du.

## 6. ZELULA


Teoria endosinbiotikoa →

Zelula prokariotiko batetik zelula eukariotiko bat nola sortzen den azladu zuen.

Endo = barneratu + sinbiosia = elkarlana

Lynn Margulis:

- Zelula urkariotiko (zelula eukariotikoa baino primitiboagoa) mintza (inbagnetzen edo tolestean) hasi zen, inbagnetzaioarekin material genetikoak harrapatu eta nukleoa



sortuz, informazio genetikoa zelulatik mugatuz (ADN) → zelula eukariotikoa.

- Mintza tolestu eta besikula sortu ziren (barne digestioa hasten da) Hauek eboluzionatuz benetako nukleo, golgi aparatu eta sare endoplasmatikoa sortu ziren.

- Organulu gehienak zelularen mintzetik sortzen dira (lisosoma, golgi..) Irenste prosezuan molekula desberdinak barneratzen direnez, bakoitzak funtzio desberdin bat hartuko du.

- Beste batzuk, zelula prokariotikoak zirenak zelula eukariotikoaren fagositosiz sortzen dira, mitokondrio eta kloroplastoak. Sinbiosia hasten da, zelulak babesa eta elikagaiak ematen dizkiete eta hauek zelulari energia ematen dizkiete trukean.

**Mitokondria eta kloroplastoak → Lehen zelula independenteak:**

Mintz bikoitza → zelularen mintza (fagositatzearen ondorioz) + bere mintz propioa (lehen prokariotikoa zelako).

ADn propioa dute, erribosoma propioak ere badituztenez, ARN propioak sortzeko gai ere badira horregatik autoerreplikatu egin daitezke (mitosiz zatitu).

Mintzean fosfolipido berezi bat dute, zelula prokariotikoetan soilik agertzen dena.

Mitokondriek arnasketa zelularra gauzatzen dute eta kloroplastoek fotosintesia.

Mitokondriak animali zein landare zeluletan dauden arren, kloroplastoak landare zeluletan soilik daude.

### **Zelula prokariotiko eta eukariotikoak:**

#### **ZELULA PROKARIOTIKOA**

- Moneroak (bakterioak)
- Ez daukate nukleorik, material genetikoa zitoplasman aske (nukleoidean kontzentratzen da ADN zirkularra eta bikoitza, ADN - a babesteko).
- Ez daukate zitoeskeletorik, (nahiz eta batzuetan mikrotubuluren bat eduki) mitokondriorik, golgiren aparaturik, kloroplastorik ezta erretikulurik ere ez.
- ADN zirkularra.
- Erribosoma txikiak (sinpleak, organulu bakarra)
- Horma zelularra (babesa) (peptidoglukanozko pareta, gluzido + proteinazkoa)
- Arnas-katea mintz plasmatikoa
- Prokarioto fotosintetizatzaileen kasuan, aparatu fotosintetizatzaileak mintzean
- Flagelo azpimikroskopikoak (lokomoziorako, zilio, finbrio, piliak.. elikadurarako)

#### **ZELULA EUKARIOTIKOA**

- Protisto, onddo, landare eta animaliak
- Nukleoa dutenez, informazio genetikoa zitoplasmatik banatuta (ADN lineala, helize bikoitza)
- Zitoeskeleto garatua, organuluen aniztasuna (mintzaren inbaginazioa, zelularen babesa, zatiketa zelularra, garraioa)
- ADN lineala
- Erribosoma handiak
- Landare, onddo eta protisto batzuetan (kitinazko pareta / animaliak + protozoek)
- Arnas-katea mitokondrietan
- eukarioto fotosintetizatzaileen kasuan, aparatu fotosintetizatzaileak kloroplastoetan.
- Flagelo eta zilio mikroskopikoak (zentrioloak animalietan, batzuetan landareetan ere, bakuoloak landare handi eta animalietan)



### **Zelula prokariotikoaren morfologia:**

Baziloak: diplobazilo, estreptobaziloak..

Kokoak: diplokokoak, estreptokokak, estefalikokoak..

Kiribilak: bibrioak, espiriloak, espiroketak..

## **7. MINTZ PLASMATIKOA**

Konposizio kimikoa: lipido (nagusiki fosfolipidoak) + gluzido + proteina

### **LIPIDOAK:**

Zelula ingurune urtsu batean dagoenez mizela egitura sortzen da (bigeruza lipidikoa)

Mintz plasmatikoa 4 fosfolipido ezberdin ageri dira

- 3 fosfolipido etanolamina, kolina, zerina)

- Esfingolipido bat (esfingosina)

- Fosfolipidietako isatsetako bat aseba eta bestea asegabea da beste molekula batzuk mintzean txertatzeko.

- Bata bestearengandik nahiko banatuta dagoenez mintzean txerta daiteke.

-Kolesterola; mintzeko jariakortasuna erregulatzeko.

### **GLUZIDOAK:**

Errezeptore gisa jokatzen dute, molekulen identifikazioa.

- Fosfolipidoei lotuta daudenak → Glukolipidoak

- Proteinei " " → Glukoproteinak

### **PROTEINAK:**

2 mota

- Mintza zeharkatzen dutenak → Transmintz proteinak → Garraio funtzioa dute, molekula txikiak mintz kanpora edo barrura garraiatzen dira.

- Proteina periferikoak → ez dute mintza zeharkatzen.

- Ingurune extrazelularrean → identifikazioa

- " intra " → erreakzio metabolikoetan parte hartu

### **EGITURAREN ASIMETRIA:**

Mintzaren kanpo eta barneko aldeak ez dira berdinak.

- Fosfatidil kolinak eta esfingomielinak disolbagarritasun gutxiago eta fusio puntu handiagoa dutenez, ingurune extrazelularrean daude, bertan babesa garrantzitsuagoa.


- Fosfatidil serina eta fosfatidil etanolaminak aldiz fusio puntu baxua eta disolbagarritasun handia dutenez barrualdean egoten dira, ingurune intrazelularrean, babesa ez da hain garrantzitsua.

### **MOSAIKO FLUIDOAREN EREDUA:**

Molekula ezberdin askoz osatuta dagoelako esaten da mosaiko itxura duela.

Mintzeko molekula horiek ez daude modu zurrun baten kokatuta, fluidoak dira, hau da, mugikortasuna dute.

Mintza fluidoa denez fosfolipido eta proteinek higidura desberdinak izan ditzakete:



## EGITURAREN JARIAKORTASUNA:

Ez da ez lar fluidoa ez lar zurruna izan behar.

- Kate hidorkarbonatuen (fosfolipido) luzeera igo → jariakortasuna jeitsi.

- Asegabetasuna igo → jarakortasuna igo.

- Kolesterol proportzioa igo → jarakortasuna jeitsi.

- Temperatura (kanpo eragilea) igo → jarakortasuna igo.

## GARRAIO MOTAK:

Deformatu gabe → mintza deformatzen ez denean.

1. Garraio pasiboa → kontzentrazio gradientearen alde; kontzentrazio

altua dagoen eskualdetik txikira. Ez du energia gasturik

a. Difusio sinplea: molekula txiki eta karga gabekoak fosfolipidoen tarteetatik sartzen dira.

b. Difusio erraztua: proteinen laguntzarekin garraiatzen dira.

### Kanal proteinak


- Poro urtsua

- Etengabe pasatu behar diren ioientzat, beti zabalik dago.

- Aldaketa konformazionala jasan behar dute sustantzia garraiatu ahal izateko.

- Seinale kimiko edo elektriko bat bidaltzen du, proteinen konformazioa aldatuz, sustantzia zelula barnera garraiatuz eta berriro hasierako konformazioa berreskuratzen du.

### Proteina garraiatzaileak



\*Uniportea: solutu bakarra pasatu.

Kogarraioa: 2 solutu pasatu.

- Sinportea → norantza bera

- Antiportea → kontrako norantza

2. Garraio aktiboa → sodioaren berezko joera zelula barrura sartzea

da, garraio pasiboz, difusio erraztuz. Sodio




kontzentrazio jakin batera heltzean, kanporatu egin behar da kontzentrazio gradientearen aurka

mintzaren potentziala erregulatzeko.

a.  $\text{Na}^+ / \text{K}^+$  ponpa:

- 3  $\text{Na}^+$  ioi eta 3 ATP proteinari lotu eta ATP - en hidrolisiz proteina fosforilatzen da.

- Fosforilazio horren ondorioz, energia aprobetxatuz konformazio aldaketa jasango du, sodioa mintzean zehar garraiatuz eta alde



extrazelularrean askatuz.

- Konformazio berri horrekin 2 K<sup>+</sup> lotzeko aukera du, 2 fosfato talde proteinatik askatzen dira 2 ADP -rekin lotzeko (3.a ere askatzen da baina ez dakigu zerekin lotzen den).

- Honek proteina jatorrizko konformaziora aldatzea dakar eta K<sup>+</sup> -a garraiatzen da zelularen barnealdera.

### Deformatuta:

1. Endozitosisia → sustantziak zelulara barneratzea mintzean inbaginazioak eta pseudopodoak sortuz.

a. Fagozitosia → partikula solidoak

barneratzeko mekanismoa da. Mintza barrurantz inbaginatzen da eta partikula deformazioaren barruan gelditzen da (fagosoma) xixku batean bildurik.

b. Pinozitosia → partikula likido edo disolbatuak barneratzeko mekanismoa.

Fagozitosiaren antzeko prozesua da; sortzen den xixkua pinozitosoma da.


c. Errezeptore bidezkoa → kolesterolaren LDL -aren kasuan adibidez..

Kolesterolak antena molekula batzuk ditu inguruan eta gure zelulek molekula horiek identifikatzeko errezeptoreak dituzte, kolesterola errezeptore horietara lotu eta mintzak barrura sartuko du xixku baten errezeptoreekin batera.

Fagosoma sortzen da.

2. Exozitosisia → zelulari material handiak kanporatzeko aukera ematen dion prozesua da. Zitoplasmatik garraiatzen dira hondakinak xixkuen barruan, eta azkenean mintz plasmatikoarekin mihiztatu (fusionatu) eta edukia kanpoaldean husten dute.

\*Endozitosian galtzen den mintza, exozitosian berreskuratzen da.



### LOTURAK:

Zelulen arteko komunikazioa ezinbestekoa da zelulen arteko aktibitatea errazteko, informazioa transferitzeko eta molekulak garraiatzeko. Zelulen arteko kontaktuak dira.

1. **Itsaste mekanikoak** → tentsio handiaren eraginpean dauden elkarren arteko ehunetan (kardiakoa, epiteliala → organoak estaltzen dituen). Zitoeskeletoko proteina zuntzak elkarren artean lotzen dira. Funtzio nagusia: indar

mekanikoa eman era esfortzu mekanikoei eustea.

a. Itsaste-zerrenda / aingurapen gerrikoa → alde apikalean sortzen dira loturak. Transmintz proteinak aktinazko mikroharizpiei lotzen zaizkie katenien bidez.

b. Desmosomak → elakreen ondoko zelulen mintz plasmatikoen arteko lotura oso estuak dira, transmintz proteinen bidezkoak. Proteina horiek alde zitოსolikoan plaka desmosomikora lotzen dira

eta plaka horiek zitoeskeletoko harizpi ertainei. Proteinaren zuntzaren luzakinak mintzaren alde extrazelularrean irtetzen dira eta beste zelularen luzakinekin lotzen dira erakarpen indarren bitartez.

c. Hemidesmosomak → egitura bera da baina alde basalean (ehun epitelialarekin kontaktuan dagoen alde). Hemidesmosomak dira mintzean txertatu egiten direlako, eta plaka hemidesmosomikoa behar dute.

2. **Lotura estuak / oklusio loturak** → elakrren ondoko zelula arteko espazioa guztiz itxi. Ez diete molekulei eta ioiei igarotzen uzten, zelulen alboko azaleretatik.

3. **GAP loturak** → 2 transmintz proteina parean jarri eta kimikoki koinziditzen dute hodi bat sortuz molekulen garraio eta zelulen komunikaziorako. Ioi ez-organikoak eta molekula disolbagarri txikiak pasatzen dira.

4. **Interdigitazioak** → zelula baten mintza inbaginazioduna edo tolesduraduna bada, beste mintz tolesduradun batekin elkartzen da kimikoki osagarriak bihurtuz. Lotura os egonkorak dira.

5. **Plasmodesmosomak** → landare zelulem komunikazio bideak dira. Horma zelularrak dituen poroetatik sustantzien garraioa gertatzen da.

### MATRIZE ZELULARRA:

Barrunbe urtsua da.



Odolak elikagaiak garraiatzen ditu, baina elikatzen dituen zelulak ez badaude berari guztiz lotuta, matrice extrazelularrean beharrezko osagaiak daude, ehunen eustea ahalbideratzeko.

### Funtzioak:

- Ehunen eustea.
- Zelulen arteko komunikazioa.
- Zelulen identifikazioa.

### Osaera:

- Beti ez dago elikagai kopuru bera, beraz, ehuna eraginkorra izateko elastikotasuna ematen dien kolagenoa eta elastina (proteinak) daude.
- Zelulen identifikaziorako glukoproteinak eta glukolipidoak daude. Ehun horretakoa ez den zelula bat sortzen bada suntsitu egiten du.



## LANDAREEN HORMA ZELULARRA:


- Erdiko xafla → landare zelula sortzen den lehen pareta, pektinazkoa.

Golgiren aparatutik datozen pektinazko xixkuak batu eta fragmoblastoa sortu.

- Pareta primarioa → zelulosazkoa. Hazten dabilen bitartean

biguna da eta hanpadura presioz hazten da.

- Pareta sekundarioa → heldutasuna lortzen duenean hasten da, asmoz egonkorragoa (zelulosazkoa).



## LANDAREEN ZELULA PARETA:

Plasmodesmoak dituzte eta hauek euren arteko komunikazioa ahalbideratzen dute, zelulak bata bestearen gainean kokatzen dira zelula ehuna sortuz.

### Funtzioak:

- Forma, babesa eta eustea (egituraketa funtzioa) ematen die zelulei, sendotasuna.

- Hanpadura presioan parte hartzen du (OSMOSIA)

### Paretaren aldaketak:

Endermisa → kutikulak (argizarizko pareta) eguzki izpien eta intsektuen aurrean babesa ematen die hostoei.

Xilema eta zura → suberra → zelula hilezko geruza → euste gaitasuna, babes extra.

## 8. + 9. ORGANULUAK

### ZITOSOLA edo HIALOPLASMA:

Zelularen barrunbe guztia da.

- Zitoplasma (ingurune urtsua) + organuluak, molekulak, nukleoa..

Ura (%70-85)

- Bertan disolbatuta:

- Metabolismoko entzimak (erreakzio kimikoak zitoplasman gertatu).

- Zitoeskeletoaren parte diren proteinak (egitura).

- Gluziodak (glukosa nagusitu) (momentuko energia).

- Nukleotidoak eta mota ezberdinetako ARN -ak (proteinen sintesia).

- Glukogenoa eta lipidoak (erreserba modura).

### Funtzioak:

- Materialen energia erreserba funtzioa (glukogeno eta lipidoak)

- Erreakzio metabolikoak.

### ZITOESKELETOA:

Proteinaz osatutako sare handi bat da, nukleoaren mintzetik zelularen mintzera oso adarkatuta dago eta zelularen barrunbe guztia estaltzen du.

### Funtzioak:

- Mekanikoa →

- Zelularen mugimendua eragiten du.

- Molekula eta organuluaren garraioa (mitosian kromosomak poloetara garraiatu, zatiketa ardatza).

- Egiturazkoa →

- Zelulen forma mantentzen du, mintzari eusten dio.

- Komunikazioa →

- Zelulen arteko komunikazioa baimentzen du,, lotura intermolekularretan.

### **Osagai nagusiak (3):**

(denak agertzen dira zelula guztietan baina kopurua aldatzen da, zuntzaren diametroaren arabera sailkatzen dira)

- **Harizpi ertainak** (ertainak) →

- Zuntz proteinaz osatutako harizpiak dira (keratina, desmina, filarina).  
- Egiturakera funtzioa dute (zelulari forma).  
- Erresistentzia mekaniko handia eta konformazioa aldatu behar duten ehunetako zeluletan harizpi ertain asko ageri dira (tentsio mekanikoari eutsi).

- Nukleo mintzetik zelula mintzerarte hedatzen dira sare moduan.  
- Plaka desmosomikoarekin erlazionatuta (adarkatzen diren proteinak).

- **Mikroharizpiak** (txikiak) →

- Aktinazko harizpiak.  
-Itsaste zerrendekin lotzen diren harizpiak (aktinazko zuntzak zelulatik irten, beste zelula batzuekin lotzeko).

- Mintz plasmatikoa barnealdetik osatzen du (mintzaren asimetria).

### **Funtzioak:**

- Zelulari forma eta trinkotasuna ematen dio.

- Aktinazko zuntzak mintzaren uzkurduz mikrobiloak eta pseudopodoak sortu daitezke.

- Mikrobiloak → hesteetan ,elikagaien xurgapen azalera handitzeko.

- Pseudopodoak → endozitosiz sartzen diren xixkuen eraketa.

- Besikula eta organuluaren garraioa (molekulak gidatu).

- Zatiketa zelularrean (zitozinesia) zatiketaren arduraduna → eraztun uzkurkorra (mintza zatitzeaz arduratzen da).

- Muskulu ehunetako zeluletan aktinazko harizpiak miosinazko harizpiekin elkartzen dira dimeroak sortuz (3.mailako zuntz proteinak). Hauek sarkomeroak osatzen dituzte eta azken hauen muskuluen uzkurdu mekanismoa ahalbideratzen dute.

- **Mikrotubuluak** (handienak) →

- Tubulina dimeroa ( $\alpha$  eta  $\beta$  tubulina) da bere oinarritzko proteina, Tubo formaz eratzen dira euren artean trentzatuz. Besteak baino konplexuagoak (3.mailako proteina).

- Zatiketa zelularrekin lotura zuzena.

### **Funtzioak:**

- Besikula eta organuluaren garraioan parte hartu.


- Zilioen eta flagoen egituraren zatia.

- Ardatz mitotikoa osatzen dute, kromosomak banatzea ahalbideratzen duena (tubulinazko ardatza).

### **Sorturiko egiturak:**

- Zentrioloak → bederatzi mikrotubulu hirukote.

Perpendikularki bikotetan antolatuta, zentrosomak eratuz.





- Zeulako gainontzeko mikrotubuluuen antolamenduaz arduratzen da.
- Zatiketa zelularrean zatiketa ardatza eratzen dute (kromosomak mugitzeko).
- Animalia zelulen ezaugarri dira (salbuespenak salbuespen).


Asterrak, kanpoan geratzen diren mikrotubuluak dira, lotura intermolekularrez lotzen dira.

Zatiketa zelularrean zatiketa ardatza izango da, kromosomak poloetara eramateko.

### ZILIO eta FLAGELOAK:

- Zilioak laburragoak dira eta flageloak luzeagoak baina mikroskopikoki berdin ikusten dira.

Zilioek ingurunean likidoa mugitzen dute → ura mugitzeaz batera dislobatutako elikagaiak eskuratzen dituzte. (mugimendu bortitza baina laburragoak)



- Flageloak lokomozioa ahalbideratzen dute. (indar berdinarekin errekorrido handiagoa → mugimendu ez hain bortitza).

-Korpuskulu basalean (hasierako zatian) 9 mikrotubulu hirukote daude. ondoren trantsizio gunean, 9 mikrotubulu hirukoteak bikote bihurtzen hasten dira eta azkenik, axoneman, trantsizioan galduriko hirugarren 9 mikrotubuluak berrantolatu eta 10 bikote zentral bat sortzen dute.


\*Uretako izaki mikroskopikoak ur ingurunean bizi direnak) hauek garatzen dituzte.

### ERRIBOSOMAK eta INKLUSIO ZITOPLASMATIKOAK:

Ez dute mintzik.

- Erribosomak →

Zelula prokariotikoetako organulu bakarra.  
Zelula eukariotikoetako erretikulu endoplasmatico pikortsuan, kloroplastoetako estroman eta mitokondrioen matrizean. (ADN propioetik sortuta) Zitoplasman ask ere badaude.



Bi zati: Azpiunitate txikia eta handia → proteinen sintesian itzulpen fasea egiten daudenean bakarrik lotuta.

- Inklusio zitoplasmaticoak →

Erreserbarako garaiak eta hondakinak inklusio zitoplasmatico eran egotendira bilduta (glukogeno tanta bat, adb).


### MINTZ BAKARREKO ORGANULUAK:

Endomintzen sistema →

Erretikulu endoplasmatico + golgiren aparatua + lisosomak + peroxisomak + bakuoloak  
Nukleo mintzaren luzakinetatik sortutakoak.

### Erretikulu endoplasmatico

1. **Bikortsua** → erribosomak ditu.





- **Proteinen sintesia** → mintzeko parte izango diren proteinak sortzen ditu, hauek lumenean (erretikuluaren barnealdea) gordetzen dira bertan glukosilazioa jasan eta zati glukidikoa gehitzeko, gerora mintzean behar baitute.

Glukosilazioa → proteinari azukre katea gehitzeari deritzo. Horrela gero glukoproteina bezala jokatuko dute.

- **Entzimen sintesia** → gerora lisosoma eta peroxisoma barruan egongo diren entzima hidrolitikoak sortzen ditu.

**2. Leuna** → ez du erribosomarik.

- **Lipidoen sintesia** → fosfolipidoak eta kolesterola sortzen ditu. Batzuk glukosilazioa jasan beharko dute, gero mintzeko glukolipido bilakatzeko.

- **Detoxifikazioa** → zelularen “depuradora” bezala jokatzen du. Sartutako agente txarrak detoxifikatzen ditu; toxikoa den zatia kimikoki eraldatu eta apaldu edo ezabatzen ditu.

- Kaltzio biltegi gisa jokatzen du, gehienbat muskulu ehunetako zeluletan.

- **Glukogenolisia** → glukogenoa hidrolisatu, glukosa askeak lortzeko.


**Golgiren aparatua**

Zakulu sistema bat da, erretikulu endoplasmaticoaren luzakin moduan sortzen dena. Mintz zati bakoitzak zakulu bat sortzen du.

Zakulu = zisterna = diktiosoma = golgiren aparatua  
 multzo / sistema + xixku txiki batzuk

Ziz eta trans aldeak ditu:

- Zis → molekulak, funtziorik gabe, sortzen diren aldea.
- Trans → molekulak, funtzio espezifikoarekin irtetzen diren aldea.




- EEn sortu diren lipido eta proteina xixkuak golgiren aparatua barruan sartzen dira euren egitura kimikoa eraldatzeko. Zakulu denetatik pasatu ostean funtzio jakin bat lortzen dute.
- Mintzean parte hartuko duten proteinak digestio zelularrean erabiliko diren lisosomak edo peroxisomak izango dira. Lipidoak berriz, mintzean parte hartuko dute.
- Barrualdeak molekulak eraldatzeko hainbat entzima ditu.
- Landare zeluletan, polisakaridoen sintesia (entzima hidrolitiko bidez).

Molekula konkretu bat sortzen duenean baina bere funtzioa beste leku batean egiten duenean mintzean zehar garraiatu eta exozitatu egiten du funtzioa egin behar duen lekura seinale kimiko baten bitartez.

**Lisosomak**

Golgiren aparatutik irtetzen diren besikula txiki eta obalatuak = lisosoma primarioak.



Entzima hidrolitikoek gordailua den organulu xixkua, mintz batez inguratuta.

Digestio zelularra burutzen dute (PH azidoa dute, 5).

Entzimak egoera onean mantentzeko,  $H^+$  -ak ponpatzen dira kontzentrazio gradientearen kontra (lisosoma barrura), PH -a azido mantentzeko.

- Lisosomak entzima hidrolitikoak ditzute; bere inguruko mintza mizela egitura arruntz bat bada, nola da posible lisosoma ez liseritzea?


- Barrutik, babes eran, glikosilatutako gluzidozko kate batzuk dituzte. Entzima hidrolitikoek lisosomaren mintza ez hidrolisatzeko.

- Liseriketa zelularra → fagozitosiz molekula bat zelula barnera sartzen da, heterofagosoma bihurtuz. Hau lisosoma primarioarekin lotzean lisosoma sekundarioa sortzen da. Entzima hidrolitikoak lanean hasi eta molekula lisatzen dute, zelulak behar dituen elikagaiak zitoplasmara bidaliz eta hondakinak zelulatik exozitosiz kanporatu.

Autofagosoma (mitokondrio zaharra) mintz batekin estaltzen da eta prozesu berdina jarraitzen du.

### **Peroxisomak**

Lisosomen antzekoak dira, baina entzima desberdinak dituzte (peroxidasak eta katalasak). Prozesu oso konkretuetan hartzen dute parte. Entzima hauen bitartez, oxidazio prozesuetan ur oxigenatua / ur peroxidoa ( $H_2O_2$ , peroxidasa) sortzen dira akats bezala. Peroxisomak katalasa entzimaren bidez akatsa konpontzen du lotura apurtuz.  $2H_2O_2 \rightarrow H_2O + O_2$  ( $H_2O_2$  desagertarazten dute, zelula ez kaltetzeko). Peroxisomak eskualde ilun bat dute bereizgarri gisa, eta bertan dauden entzimak kristalizatuta daude.



### **Bakuoloak**

Landare zelulen bereizgarri dira.

Biltegi funtzioa dute; mintz baten bidez ura, pigmentuak, erreserbarako gaiak.. gorde.

Landare zelula zenbat eta helduago, bakuolo handiagoa (biltegiratzeko joera gehiago).

Itsaso ondoan daudenek ur asko metatzen dute (alofitoak dira) bizi diren ingurunea hipertontikoa delako.

Beste batzuek sustantzia "toxikoak" izaten dituzte autobabeserako (sustantzia narritagarriak bakuoloetan gorde).

izaki zelularretan (bakterioetan) ere badaude.

Bakuolo uzkuertzailea → ura bakuolora sartzen da, hau turgente dagoenean ura automatikoki kanporatzeko. Erregulazio mekanismoa da, horrela plasmolisia ekidin.


Digestio bakuoloa → ez dutenez EE, golgi, lisosoma ezta peroxisomarik ere ez, bakuoloek egiten dute sustantzien liseriketa.



## **MINTZ BIKOITZEKO ORGANULUAK:**

### **Nukleo zelularra**

ADN -a zitoplasmako entzimetatik babesteko gunea → zitoeskeletoarekin lotura zuzena. Mizela egiturazko mintz bikoitza du.



Zelula eukariotikoetan bereizgarri da.

Poro nuklearrak ditu, molekulak nukleora pasartzeko identifikatu ondoren, erregulazio oso zorrotza.

- ADN -aren transkripzioarako proteinak eta histonak.

**- Nukleo interfasekoa**

Zatitzen ez dagoenean.

Poroak glikolisatuta daude molekulen identifikaziorako, nukleoloan (zati iluna) ADN -a dago eta bertatik ARN erribosomikoa sortzen da.

Nukleoaren ADN -an dagoen atal bat ez da erabiltzen:

- Heterokromatina: poso kondentsatuta dagoenez ezin da ARNt -ra transkribatu. Zati ilunagoa da eta uste da zelula horrek behar ez duen informazioa gordetzen duela.
- Eukromatina: zati argia. Ez dago hain kondentatuta eta beraz transkribatu daiteke.

**Mintz nuklearra**

Zelularen bigeruzak lipidikoaren oso antzekoa.

Barrualdean zitoeskeletoa du zatiketa zelularrerako.

**Funtzioak:**

- ADN -aren babesa.
- Proteina eta entzimen garraioa (transkripzioa):

Molekulak txikiak poroetan (transmintz proteinetan) zehar.

**GARRAIO PASIBOZ**

Molekula handiak, histonak eta proteina konplexuagoak, poroen (proteinen) konformazio aldaketa baten bidez (ATP gastua).

GARRAIO AKIBOZ (ahalik eta gutxien transformatuko da segurtasuna irabazteko)

**Nukleoplasma**


Ingurune urtsua da. Zelularen zitoplasman bezala, zitoeskeletoko zuntzak, ADN -a disolbauta (kromatina eran), entzimak, molekulak eta ioiak (koentzimak).

**Kromatina**

Gutziz kondentatuta ez dagoen nukleo interfasekoaren ADN -a da.

**Nukleoloa**

ARN erribosomikoak sortzen duen ADN -ak kromosometan paketatzean kokapen berezia hartzen du. Kokapen hori satelite deritza. Kromosomen muturretan kokatzen dira nukleoloaren izan den ADN -a. Ez da beti agertzen.



parte

**- Nukleo mitotikoa**

Profasean nukleoloa desegin eta ADN -ak kromosometan paketatzen dasten da. Gutziz paketatzean nukleo mintza desegiten da. telofasean, poloetara heltzean, mintza berreraiki eta kromosomak pixkanaka despaketatzen dira. Berriz ere heterokromatina, eukromatina eta ARNt sortzen dira.

Kromosomen egitura → 2 kromatina ahizpa zentromeroen bidez lotuta. Honek eraztun proteinkoa du eta biek batera zinetokoroa sortzen dute. Zatiketa zuntzak zinetokorora lotzen dira kromosomak banatzeko. Beti ez dira erdian lotzen.

Zerrendak → geneak lotzen diren lekua.

Kromosoma kopurua aldatzean normalean adimen urritasuna dakar.

Kariotipoa → nukleoak duen informazio genetiko.

## MITOKONDRIOAK

- 2 mintz: kanpokoa (tolesdura gabea) eta barrukoa (tolesdura/mesosomaduna).
- ADN propioa: bikotz + zirkularra.
- Funtzio nagusia: arnasketa zelularra (energetikoa) (materia organikoa → energia kimikoa)
- Barne mintzeko fosfolipidoa, prokariotikotan bakarrik agerten dena.
- Erribosoma propioak (ADN propioa)
- Inbaginazioak → mesosomak
- Zelula eukariotiko guztietan.

### Osaera:


- Matrizea: ingurune urtsua, proteina eta entzimaz beteta, arnasketa zelularra burutzeko.
- ADN -a eta erribosomak.
- Barne-mintza: arnas kateko entzima eta ATP sintasa inbaginazioetan, arnasketa zelularra gertatzen da.
- Kanpo-mintza: oso iragazkorra.
- Mintzen arteko eremua: zitosolaren antzekoa.

## KLOROPLASTOAK

- 2 mintz: biak leunak..
- ADN propioa. bikoitz eta zirkularra.
- Funtzio nagusia: fotosintesia (energetikoa) (eguzki energia → energia kimiko)
- Barne mintzeko fosfolipidoa, prokariotikoetan bakarrik agertu.
- 
- Erribosoma propioak (ADN propioa).
- Inbaginazioak → tilakoide zakuak
- Izaki fotosintetikoetan bakarrik.

### Osaera:

- Estroma → ingurune urtsua, bertan energia kimikoa glukosara eraldatzen da.
- Kanpo eta barne mintzak:
- Tilakoidea → pigmentudun zakua, tilakoide multzoa = grana, eguzki energia energi kimiko bihurtzeko.



## 10. METABOLISMOA

### KATABOLISMOA:

Zelularen energia sortu funtzio biologikoak aurrera eramateko. Homeostasia mantentzea beharrezkoa da.

Energia lorpena → 2 modutara

Kimio (materia organikotik)


Foto (eguzki energiatik)

Elikatzeko moduagatik → auto (m.inorganiko) edo hetero (m.organiko)

Gizakia kimioheterotrofoa da.

### Molekula bitartekariak

- ATP energia molekula / energia garraiatu (hidrolisatu eta energia askatu)
- $\text{NAD}^+$ ,  $\text{FAD}^+$ ,  $\text{NADP}^+$  ( $\text{e}^-$  eta  $\text{H}^+$  garraiatzaileak)
- A koenzima (azil taldea garraiatzen du Azetil -CoA molekula eran, azido azetikoa transferitzen du krebs /en ziklora.



### Metabolismoa zeluletan

#### Katabolismoa

- Molekula konplexuak simple bihurtu.
- Prozesu exergonikoak, energia askatu, ATP eran metatuz.
- Oxidazio errakzioak:  $\text{e}^-$  eta  $\text{H}^+$  askatu eta  $\text{NADH}$ ,  $\text{FADH}_2$  moduan metatu.
- Bide konbergenteak dira: hainbat molekulatik abiatzen dira eta molekula mota gutxi batzuk sortzen dira.


#### Anabolismoa


- Molekula konplexuak sintetizatu: biosintesia.
- Prozesu endergonikoak, ATP -aren hidrolisitik askatutako energia erabili.
- Erredukzio erreakzioak:  $\text{NADH}$ ,  $\text{FADH}_2$  oxidazioz askatutako  $\text{e}^-$  eta  $\text{H}^+$  hartu.
- Bide dibergenteak dira: molekula aintzindari gutxi batzuetatik abiatuta hainbat molekula mota sintetizatu.

### KATABOLISMOA:

Azken  $\text{e}^-$  hartzailea zein denaren arabera.

- Aerobikoak → oxigenoa azken hartzailea.
- Anaerobikoak → azken  $\text{e}^-$  hartzailea molekula organikoa, oxigenorik ez.
- Fakultatiboak → gehienetan aerobiko, baina  $\text{O}_2$  gutxi dagoenean anaerobikoa egin dezakete.





**Glukosaren katabolismoa** →

2 etapa: 1 → glukolisia, 2 → azido pirubikoaren

oxidazioa (aerobiko/anaerobiko)

**1. Glukolisia:**

Zitosolean

Glukosa (6C)

Hasierako konposatua

4 erreakzio

2 ATP gastua

2 Glizeraldehido - 3 - fosfata (3C)

5 erreakzio

2 NADH gastua

4 ATP lortu

2 Pirubato (3C)

Glukosa = 2 pirubato + 2 ATP + 2 NADH

**2. Azido pirubikoaren oxidazioa:**

**2.1. Azido pirubikoaren oxidazioa (arnasketa zelularrean):**

3 etapa: 1 → pirubatoaren oxidazioa azteil CoA -ra, 2 → krebs -en zikloa, 3 → arnas katea eta fosforilazio oxidatiboa.

**1. Pirubatoen oxidazioa:**

Mitokondrien matrizean

2 pirubato (3C)

2 CoA gastua

2 CO<sub>2</sub> + 2 NADH lortu

2 azetil Co A (2C)


2 pirubato = 2 azetil CoA + 2 NADH

**2. Krebs -en zikloa:**

Mitokondrioaren matrizean.

Bide anfibolikoa da: katabolismoa eta anabolismoa lotzen dituen erreakzio katea.

Sortzen diren molekula bitartekariak anabolismoko erreakzioetan parte hartuko dute, oinarrizko molekula bezala. Zikloan zehar CO<sub>2</sub> askatzen da karbonoa desagertuz.



+ Azteil CoA → zitratoa → 7 erreakziotako katea →

oxalazetatoa (azken produktua)

2 azetil CoA = 2 buelta

2 azetil CoA (+ 4CO<sub>2</sub>)

=

6 NADH + 2 ATP + FADH<sub>2</sub>



3. Arnas kateko elektorien garraioa eta fosforilazio oxidatiboa:

Molekula erreduzitua zelularentzat energia lortzeko ATP -tan bilakatu behar dira, mitokondrioaren barne-mintzean gertatzen da.


- Arnas katea →

Katabolismoko prozesuan sortu diren FADH<sub>2</sub> eta NADH molekula erreduzitua e<sup>-</sup> -ak askatu eta mitokondrioaren barne mintzeko proteinetan e<sup>-</sup> fluxu bat sortzen dute. Elektroi fluxu hori proteinaz proteina doa gero eta maila baxuagotara azken elektroi hartzailearte (O<sub>2</sub>). Elektroi fluxuan askatu den energiarekin H<sup>+</sup> -ak mintzen arteko gunera ponpatzen dira. (O<sub>2</sub> -ak H<sub>2</sub>O sortzen du produktu bezala). Hau hipotesi kimiosmotikoaren arabera gertatzen da.

- Fosforilazio oxidatiboa →

Mintzen arteko gunean karga positiboa metatzen denez mintzen arteko guneko potentzial elektro kimikoa da eta ATP sintasa aktibatzen da.

ATP sintasak H<sup>+</sup> -ak mintzen arteko gunetik mitokondrioaren matrizerara ponpatzen dira. Horretan ekoizten den energiarekin ADP -ak fosforilatu eta ATP -ak sortzen dira.



Zer garrantzi du O<sub>2</sub>-ak prozesu honetan?

Azken e<sup>-</sup> hartzailea da eta e<sup>-</sup> fluxua ixten du hurrengo prozesua hasia ahalbideratuz.

Energia balantzea → 1 FADH<sub>2</sub> → 2 ATP // 1 NADH → 3 ATP

	ATP	NADH	FADH <sub>2</sub>	
Glukolisia	2	2	2	
Pirubatoen oxidazioa		2		
Krebs	2	6	2	
Arnas katea		x 3	x 2	
Guztira	4	30	4	→ 38 ATP

**2.1. Azido pirubikoaren oxidazioa (hartziduran):→**

Zitoplasman.

Ez da hainbeste energia lortzen, azken e<sup>-</sup> hartzailea ez delako O<sub>2</sub>.

2 motatakoa:

- Alkoholikoa →

2 pirubato (3C)

Deskarboxilatu egiten da

2 NADH gastua  
2 CO<sub>2</sub> lortu

2 etanol (2C)

2 pirubato = 2 etanol + 2 CO<sub>2</sub>

- Laktikoa →

2 pirubato (3C)

2 NADH gastua

2 laktato (3C)

2 pirubato = 2 laktato



Azido laktikoak proteinak desnaturalizatzen ditu.

Glukosa =  $\rightarrow$  2 pirubato = 2 etanol + 2 CO<sub>2</sub> + 2 ATP


$\rightarrow$  2 laktato + 2 ATP

Glukolisia  $\rightarrow$  - 2 ATP + 2 NADH + 4 ATP = 2 pirubato + 2 NADH + 2 ATP



Pirubatoaren oxidazioa  $\rightarrow$



Krebs -en zikloa  $\rightarrow$



Arnas katea + fosforilazio oxidatiboa  $\rightarrow$



2 pirubato

### **GANTZ AZIDOEN KATABOLISMOA:**

Zitosolean.

Lipasa bidez triazilglizeridoak hidrolisatu.

Ester lotura apurtu.

Glizerina + 3 gantz azidoa  
Glukolisia  $\beta$  oxidazioa

#### $\beta$ oxidazioa

- Zitosolean:

Gantz azidoak  $\rightarrow$  Azil CoA 2 ATP kontsumitu (2 ATP  $\rightarrow$  2 ADP)

- Mitokondriaren matrizean:

Azil CoA mitokondrora sartzeko karnitinarekin lotu

Azil karnitina (barrura sartu eta askatu)

4 erreaktiotako katea, buelta bakoitzean azteil CoA + NADH + FADH<sub>2</sub> + GA - 2C

4C dituenean 2 azetil CoA + NADH + FADH

C kopurua bakoitia bada:

5C dituenean Azetil CoA + propinoil + NADH + FADH

- Sukzinilera eraldatu eta Krebs -en zikloan sartu.

Azetil CoA krebs -en ziklora (18 C katea = 9 azteil = 9 ATP)

Buelta 1 -en ATP 1 + 3 NADH + 2 FADH<sub>2</sub>

ATP

NADH

FADH<sub>2</sub>

$\beta$ oxidazioa		8	8
Krebs	9	27	9
Arnas katea eta fosforilazio oxidatiboa			
Guztira $\rightarrow$	9	105	34

Gantz azido bakoitzarekin 146 ATP  $\rightarrow$  Askoz energia gehiago sortu.

( - hasieran erabilitako 2 ATP gantz azidoak azil CoA bihurtzeko)

## 11. ANABOLISMOA

Molekula konplexuen sintesia, prozesu endergonikoak.

### HETEROTROFOETAN:

**Gluzidoen anabolismoa**  $\rightarrow$  glukogenogenesisia

- Glukosa kontsumo handia behar den organoetan gertatzen da (burmuina, muskuluak, espermatozoideak..)

- Pirubatoa oinarri hartuta glukosa sintetizatzen da, zati handiena zitosolean gertatzen da.

Mitokondrioaren matrizean:

2 pirubato  $\rightarrow$  2 malato (3C) 2 ATP + 2 NADH gastua

Zitosolean:

2 malato  $\rightarrow$  2 oxalazetato 2 NADH gastua

2 fosfodienolpirubato

2 GTP gastua

2 3 - fosfoglizerato

2 ATP gastua

2 Glizeraldehido - 3 - fosfato

Glukosa  $\rightarrow$  2 pirubato + 4 ATP + 2 GTP

\*Pausu batzuk itzulezinak dira.

Glukogenogenesisia VS glukolisia  $\rightarrow$  prozesu biak batera gerta daitezke? Glukosa kontsumo handia diten ehunetan soilik; energia soberan dagoenean.

- Glukogenogenesisia  $\rightarrow$  glukosa oinarri hartuta glukogenoa sintetizatzea (gibelean eta muskulu eskeletikoan). Glukogenoa sortzeko glukosen arteko (O - glukosidikoa) loturetan energia metatzen da. UTP 1 fosforilatu egiten da glukosa sortzeko energia loturetan gordez, honek glukogenora lotzeko energia hori askatu behar du.

**Lipidoen anabolismoa**  $\rightarrow$  gantz azidoen sintesia

Azetil CoA oinarri hartuta gantz azidoen sintesia burutzen da. Animalietan zitosolean, landarreetan kloroplastoetan.

- Azetil CoA -k zitosolera atera behar du, baina ezin duenez mitokondrioa Azetil eran zeharkatu Krebs -en zikloaren bitartez zitratoa eraldatu eta zitosolera irtetzen da.

- Bertan berriz Azetil CoA bihurtzen da ATP bat kontsumituz. Azetil CoA batekin erreakzionatu eta 4 erreakziotako kate batean (2 NADH kontsumitu) 4C .ko gantz azil CoA sortzen dute.

- Honi beste 6 azetil CoA gehitzen zaizkio eta hauek ere errazio segidan parte hartzen dute 16C -ko azido palmitikoa sortzeko (oinarrizko gantz azidoa).

Energia balantzea → 8 azetil CoA + (8+1) ATP + 14 NADH → Azido palmitikoa

**Proteinen anabolismoa** →

Proteina mota bakoitza Krebs -en zikloko puntu batean sartzen da (R taldearen arabera).

**AUTOTROFOETAN:**

**Fotosintesia** →

Izaki autotrofoek pigmentuak dituzten molekula batzuk dituzte argi energia xurgatzen dutenak. Ondoren energia kimikora eraldatzen da.

2 etapa:

1. Argiaren menpeko fasea → argiaren xurgapena (tilakoideen mintzean) + energia eraldaketa

2. Argiaren menpekotasunik gabeko fasea → molekulen eraldaketa (estroman)

- Prozesu endergonikoa da, molekulak erreduzituz (CO<sub>2</sub>) energia handitzen delako.

- H<sub>2</sub>O oxidatu egiten da, H<sup>+</sup> -ak emanez eta soberan geratu den oxigenoa hondakin moduan kanporatuko da landarearen estromatik.

1) Argiaren menpekotasunik gabeko fasea:

Osagaiak: Argia + pigmentuak (xurgatzen duten argiaren uhin luzearen arabera; klorofila, karotenoa, xantofiloa)

..  
+ molekula elektroiz garriztaileak + azken elektroiz hartzailea: NADP<sup>+</sup>

- Elektroiz garraio ez ziklikoa →

Tilakoideen mintzean


Argia II fotosistemara heltzen da pigmentuak kitzikatuz (argiaren uhin luzeera 680 nm) eta energia maila altuago batera pasaz PS II -ko pigmentuak berezko egoerara itzultzeko e<sup>-</sup> fluxua hasten da. Honek PS II -a elektroiz gutxiagorekin uzten du, eta elektroiz horiek berreskuratzeko uraren fotolisia gertatzen da (H<sub>2</sub>O molekulak oxidatuz, elektroiz PS II -ari eman eta H<sup>+</sup> eta O<sub>2</sub> askatu).

Argi izpiak (700 nm -ko uhin luzearekin) lehenengo PS I -ko pigmentuak kitzikatzen dituzte, lehen bezala energia mailaz igoz. Lehenengo egoerara itzultzeko, elektroiz fluxu bat hasten da eta fluxu honen hartzailea NADP<sup>+</sup> -a izango da. Kasu honetan, PS I -ek galdutako elektroiz PS II -ko elektroiz fluxutik berreskuratzen ditu.


BF zitokromoak mintza zeharkatzen duen proteinak) elektroiz fluxuan eta H<sub>2</sub>O -aren fotolisian askatutako energia (H<sup>+</sup> -ak) tilakoidearen barrura ponpatzeko funtzioa du. Tilakoidea positiboki kargatuko da (potenzial elektrokimikoa aldatuz).

- Fosforilazio oxidatiboa → (ez-zikliko zein ziklikoan)

ATP sintasa aktibatzea (konformazioz aldatzea) eragingo du, potentzial aldaketa horrek H<sup>+</sup> -ak energiarekin pasatzen dira, ATP sintasatik ADP bat fosforilatu eta ATP -ak lortzeko.




- Produktuak → NADPH, ATP eta O<sub>2</sub>.



- Fotofosforilazio ziklikoa →

NADH nahikoa baina ATP gehiago behar denean. Egunez egiten den prozesua da; gauez ere egin daiteke, egunez lortutako elektroien fluxua mantentzen bada. Argiak PS I -eko pigmentuak kitzikatu eta elektroien fluxua sortzen da. Ferredoxinak elektroiak azken hartzaileari (NADP) eman beharrezan BF zitokromoari ematen dizkio. Bertatik bitartekari batek berriro PS I -era eramaten ditu elektroiak PS I -ko pigmentuak (berri) kitzikatzeko. Ziklo honetan ATP sintasa aktibatzen da eta fotofosforilazio oxidatiboz ATP -ak lortzen dira.



ATP nahikoa dagoenean elektroien jausia azken hartzaileari ematen zaio zikloa itxeko (NADP).

**GARRAIO EZ ZIKLIKOA**

- PS I eta PS II-k parte hartzen dute.
- O<sub>2</sub> askatu H<sub>2</sub>O -ren fotólisisetik.
- NADP azken e<sup>-</sup> hartzailea.
- NADPH sortzen da.
- H<sub>2</sub>O -aren fotólisian askatutako H<sup>+</sup> -en eta BF zitokromoek ponpatutako H<sup>+</sup> -en metaketaz ATP ekoizten da.

**GARRAIO ZIKLIKOA**


- PS I ek parte hartzen du.
- Ez da O<sub>2</sub> -rik askatzen.
- Ez dago azken e<sup>-</sup> hartzailearik.
- Ez da NADPH -rin sortzen.
- BF zitokromoek ponpatutako H<sup>+</sup> -en metaketaz ATP ekoizten da.

**2) Argiaren menpekotasunik gabeko fasea: (Calvenen zikloa)**

Kloroplastoen estroman gertatzen da.


Helburua → CO<sub>2</sub>, ATP, NADH, errubisko entzima.

CO<sub>2</sub> bat errubulosa bisfosfatora (5C) gehitzen da, errubisko entzimaren laguntzaz, 6C -ko molekula ezegonkor bat sortuz.



Haon da ezegonkorra ze 3C -ko bi molekula fosfoglizeraldehidotara eraldatzen direla. eraldaketa prozesu batean 3C -ko bi molekula glizeraldehido 3 fosfato bihurtzen dira. 2 molekula bakoitzeko 12 molekula behar ditugu, beraz, 6 CO<sub>2</sub> -k hartu behar duten parte zikloan. Molekula horietako 2, glukosa eratzeko elkartu egiten dira, beste 10 -ek erribulosa bisfosfatoa sortzen dute hurrengo zikloari hasiera emateko.

Energia balantzea:



Glukosa hau floeman zehar garraiatzen da disakarido moduan (sakarosa: glukosa + fruktosa edo maltosa: glukosa + glukosa) eta almidoi moduan erreserba organoetan metatu eta momentuko energia ematen dute.

- Fotosintesian eragina duten faktoreak (6):

1- CO<sub>2</sub> -aren metaketa → CO<sub>2</sub> metaketa handiagoa, fotosintesiaren abiadura handiagoa (puntu baterarte, errubisko entzima asetuta dagoenerarte)

2- Argiaren intentsitatea → intentsitate gandiagoa, fotosintesian abiadura azkarragoa.

Argiaren fase produktiboa eginez, puntu baterarte, CO<sub>2</sub> metaketa faktore mugatzailea denez, abiadura mantenduko da.

3- Tenperatura → gero eta tenperatura handiagoa, entzimen jarduera handiagoa izango da (abidaura handia), puntu baterarte, proteinak desnaturalizatu daitezkeen tenperaturararte.


4- O<sub>2</sub> -aren metaketa → O<sub>2</sub> -ren metaketa handiagoak, errendimendua murrizten du fotoarnasketa bideratzen delako.

- Fotoarnasketa →

Errubisko entzimak CO<sub>2</sub> -a gabe O<sub>2</sub> -a harzten badu sustratu bezala, fosfoglizerato gutxiago sortzen ditu (2 gabe 1), gluzidoen ekoizpena murriztuz.

Tropikoko andareei estomak ixten zaizkienez, fotoarnaskera ekiditeko Hatch-Slack -en bidea garatu dute.

- Hatch-Slack -en bidea → PEP karboxilasa entzima garatzen dute tropikoko C4 landareek, honek sustratu bakarra du, CO<sub>2</sub>. Prozesu metaboliko txiki bat gertatzen da CO<sub>2</sub> -a errubiskora heldu aurretik:



Krebs -en zikloaren zati bat egin malato (4C) bihurtuz. Malatoa deskarboxilatu → Errubiskoak CO<sub>2</sub> -a lortu eta betiko bidea egiten du (Calvinen zikloa).

Prozesu hau, landare zeluletan O<sub>2</sub> asko eta CO<sub>2</sub> gutxi (estoma ia guztiak itxita daudenez, kanpotik CO<sub>2</sub> gutxi sartu eta katabolismoko hondakinetatik lortua) dagoenean gertatzen da, zelulak fotoarnasketa ez egiteko, CO<sub>2</sub> -ari errubiskorako bidea zabaltzen dio.

5- Heztasuna → hezetasun maila txikitu ahala fotosintesi tasa ere jeitsi egiten da.

Lehortasunaren aurrean estomak itxi egitean dira eta ez da gasen trukerik gertatzen.

PS I -an beharrezkoa da ura elektroiak berreskuratzeko.

6- Fotoperiodoa eta argiaren kolorea → fotosintesian ez dute eragin handirik. 680 nm -tik gora PS II -ak ez du jarduten, ebraz, elektroi fluxu ziklikoa baino ez da egongo (errendimendu txikiagoa)

Fotoperiodo laburra → udazkeneko landareak

" luzea → udaberriko landareak

### **Kimiosintesia** →

Energia kimikoaren bidez sintetizatzen dira molekulak.

1. Fasea → molekula inorganikoen oxidazioz elektroi fluxua hasten da. NADH izango da azken hartzailea. energia ATP sortzeko erabiliko da.

2. Fasea → aurreko fasean lortutako energia (ATP, NADH), konposatu ez-organikoak erreduzitzeko erabiliko da.

## **12. ZIKLO ZELULARRA**


### **G1 ALDIA:**

Zelula hazi

Landareak: ura zeluletan sartzen da, paretak bigundu eta hanpadura presioz zelula handitzen

da.

Animaliak: erretikulu endoplasmaticoak mintz plasmaticoak sintetizatu.



Egitura zelularrak bikoiztu (mitokondio, kloroplasto), luzatu (golgi, erretikuluak) eta sortu (erribosoma, lisosomak).

Zitoeskeletoa ohiko moduan berrantolatzen da.

\*Heldutasunik lortzen ez badute ez da S fasera pasako, eta G<sub>0</sub> edo atsedean fasera pasatzen dira.

\*Neuronek denbora asko pasatzen dute fase horretan,

funtzio oso espezifikoak dutenez, eta organulu gutxi garatzen dituztenez ugaltzeko denbora asko behar dute.

### **S ALDIA:**

Behin heldutasuna lortuta, ADN -a bikoitzen da. ADN -a zabaldu eta kate bakoitzaren osagarriak eta antiparaleloak diren kateak sortzen dira. Kate berri bakoitza zelulakume bakoitzarentzat.

### **G2 ALDIA:**

Zelula zatiketarako prestatzen du.

Kromosomak kondentsatzen (histonekin goi mailako egiturak sortzen) hasten da.

Zentriolo bikotea bikoitzen da eta zitoeskeletoa eraldatzen hasten da ardatz mitotikoa sortzeko.


Kromosomak guztiz kondentsatuta egon ezean 2.kontrol puntuak ez dio zatiketa zelularra egiten utziko.

ZATIKETA ZELULARRA →

**MITOSIA:**


Zelula somatikoak → jatorrizko zelularen berdinak diren 2 zelula sortuko dira.

- Espezieen biziraupenerako zelula bakarretan.
- Ehunak berritzeko izaki zelulanitzetan.



**Profasea** → zelularen berrantolaketa.

- Zentriolo bikotea bikoiztu eta zitoeskeletoa berrantolatzen hasten da ardatz akromatikoa sortzeko.
- Nukleoan kromosomak kondentsatu egiten dira eta nukleoloa desegin egiten da.
- Kromosomak prest daudenean nukleoaren mintza apurtzen da kromosomak zitoplasmara irtetzen dira.
- Zentriolo bikotea bikoiztu eta zelularen poloetara doaz, erdian ardatz akromatikoa sortzen da.



- Zuntz zinetokorikoak → zinetokoroari lotuta.(zatiketa ardatzera lotzen lagundu)
- " polarrak → zitoplasmako osagaiak banatzeko zuntzak.
- " astralak → kromosomak poloetara desplazatzeko.

**Metafasea** →

46 kromosomak 2 zentriolo bikoteen erdiko atalean lerrokatu. Irudimen lerro horri ekuatore plaka deritzo.

**Anafasea** →

Zentrioloen inguruan dauden zuntz zinetokoriko, polar eta astraletatik tiratuz kromatida ahizpa bakoitza polo batera garraiatu.

**Telofasea** →

Kromatida ahizpak poloetara heltzean, ardatz mitotikoa desegin egiten da. orduan nukleoaren mintza sortzen hasten da, nukleoloa eratzen da eta kromosomak despaketatzen dasten dira. Amaieran ADN -a kromatina eran dago.

**Zitozinesia** →


Zitoplasmaren zatiketa da.

Animaliak: telofasetik mintzaren azpiko partean zitoeskeletoko aktinazko zuntzak uzkuertzen hasi eta inbaginazioak sortuz, alde batekoak eta bestekoak bat egin eta 2 zelula independentetan banatu.

Landareetan: golgiren aparatuak sortutako pektinazko polisakaridoak xixkuetan pilatu eta elkartzten joaten dira erdiko xafla eratuz. erdiko xafla luzatzen denean fragmoblastoa sortzen da. Fragmoblastoari zelulosa gehitzen zaio zelularen pareta eraiki arte.



## MEIOSIA:



### MEIOSIS

Gameto edo ugaltan gertatzen den zatiketa zelularra.

Material genetikoa erdira murriztu behar da, horrela zelula haploideak sortzen dira ( $n$ ). Beste gameto batekin (arra + emea) elkartu behar dira, sortzen den izakia diploidea izateko ( $2n$ ). →

Gizakiok  $2n$  izan behar dugu !

Populazioko aldagarritasun genetikoa handitzen da. Zelula berriak genetikoki pixkat ezberdinak berkonbinazio genetikoa gertatzen da.

Haploidea → 2 kromosoma pare beharrean bakarra. Dotazioa erdira jaisten da.

Animalia zeluletan diploidea baino gehiago ez da onartzen (ez da bideragarria).

Landareetan, berriz, triploide, tetraploide.. izan daitezke, platanoa ( $8n$ ).

### Interfase aurremeiotikoa:

Mitosian bezala ADN -a erreplikatu eta kromosoman kondentsatu hasten dira S fase hau mitosian baino luzeagoa da.

Interfase hau lehenengo meiosiaren aurretik bakarrik gertatzen da, bigarren meiosiaren aurretik ez da interfase zelularrik ematen (edo ematekotan oso laburra, zelula pixkat hazteko).

ADN -a ez da erreplikatu.

### 1. Zatiketa meiotikoa:


Profasea →

Mitosiaren profase berdina, horrez gain kromosomen arteko gaingurutzaketa ematen da.

Fase ezberdinak ditu:

- Leptotenoa → kromatida ahizpak elkartu (homologoak direla jakiteko 2 kromatida ahizpa ezagutu egiten dira kimikoki eta elkar lotzen dira)

- Zigotenoa → kromosoma homologoak elkartzen dira. Kimikoki haien artean ezagutzeko prozesua (sinapsia).





- Pakitenoa → kromosoma homologoetako kromatida ahizpa bana zoriz gaingurutzatzen (bata bestea estaliz) eta informazio trukatu (crossing over) kromatidak lotura intermolekularrez lotzen dira (kiasma) kromosoma homologoak estu.

- Diplotenoa → kiasmak (gaingurutzaketa puntuan) argiago ikusten dira. Kiasman, beraz, gurtzadurak egon direnaren seinale dira. Kromosoma homologoak banatzen hasten dira.

- Diazinesia → kiasmak kromosomen mintz nuklearra desplazatzen dira kromosoma homologoak guztiz askatuz. Nukleoa eta mintz nuklearra desagertzen dira.

**Metafasea** →

Kromosomak plaka ekuatoriala (bikoitza, kromosoma bat eta bere homologoa) eratu kokatzen dira homologo bakoitza polo baterantz orientatuz.

**Anafasea** →

Kromosoma homologo bakoitza unitate funtzional bat da eta bakoitza polo batera doa.

**Telofasea** →

Kromosoma homologo bakoitza polo batera heltzen da zelula haploide bi emanez. Zitozinessia (zitoplaren zatiketa) mitosiaren berdina izango da.

**2. Zatiketa meiotikoa:**

Interfase zelular oso labur bat jasango dute bat jasango dute zelula kumeen, baina bertan ez da ADN -a erreplikatzeko + mitosiaren berdina baina 23 kromosomarekin.


	MITOSIA	MEIOSIA
Eduki genetikoa:	- Zatiketa kontserbakorra: krosoma dotazioa amak eta kumeek berdina, 2n.	- Erredukzio zatiketa: amaren kromosoma dotazioa 2n eta zelula kumeena n.
Interfase zelularren iraupena:	- Arrunta.	- Laburra edo ez dago.
Aldagarritasun genetikoa:	- Klonikoa, informazio genetikoa ez da aldatzen.	- Ez klonikoa, berkonbinazioa dela eta aldagarritasun genetikoa.
Kromatidaren bereizketa:	- Anafean 2n kromatida banatzen dira.	- 1.anafasean, n kromosoma banantzen dira eta 2.anafasean n kromatida.
Zatiketak:	- Zatiketa bakarra.	- Bi zatiketa.

**ZIKLO ZELULARRAREN KONTROLA:**

Ziklo zelularraren iraupena ehunaren arabera da, badira egunero berritzen diren ehunak (odolak), asaldudaren bat jasaten dutenean berritzen direnak (azala) baita oso gutxi zatitzen diren ehunak (nerbio ehuna.)

Ziklo zelularra ondo kontrolatzea garrantzitsua da mutazioak ekiditeko.

Horregatik zelulak kontrol mekanismoak izango ditu.



R puntua → G<sub>1</sub> -aren bukaeran dagoen kontrol puntua. Zelularen ziklina

eta kinasa proteinen bidez ziurtatu beharko du zelula nahikoa hasi den. zelularen hazkundearekin batera proteina konplexuen mailara igoko da. Konplexu maila egokian dagoenean, S faseari ekingo dio. (Bestela G<sub>0</sub> edo atseden fasera pasatuko da zelula)

B puntua → G<sub>2</sub> -aren bukaeran dago kontrol puntu hau. ADN -a ondo paketatuta dagoela ziurtatzen du (ziklina ta kinasa proteinen bidez), bestela prozesua gelditu.

ADN -a paketatzen doan heinean, proteina batzuk ekoizten dira; proteina kontzentrazio maila jakin batera heltzean, prozesua egoki amaituta dagoela esan nahi du.

### **ZELULAREN ZAHARTZE eta HERIOTZA:**

- Nekrosia → zelulak lesio bat jasan eta berriz konpondu ezin direnean (zauri / infekzio bat).
- Apoptosia → heriotza zelular programatua da (zelularen "suizidioa"), zelulak momentu jakin batean ekoizten ditu autosuntsipena eragiteko: hatz arteko azala, igelek metamorfosian (itsasoko zeluletan), hostoak udazkenean jautzen direnean..

Zelularen funtzionamendu arrunta mantentzeko entzimak ekoizteari utzi, edota zelulak modu ezegokian zatitzen hasita, ehunaren funtzionamendua egokia ez denean (minbizi zeluletan).

Eragin dezaketen beste substantzia batzuk:

- Glukosa → proteinen egitura aldatzen dute.
- Erradikal askeak → produktu sekundario lez sortzen diren molekulak dira.

Zelulen heriotzaren inguruan 2 gauza behatu behar dira :

- Adina → zenbat eta gazteago gehiagotan zatitzen da.
- Biziraupena → bizitza laburreko espezieak gutxiagotan zatitzen dira

luzeagoak baino.

Hipotesiak:

- Heriotza geneetan kodetuta dago.
- Zelulek erroreak metatzen dituzte denbora pasa ahala → heriotza.
- Kromosometan gene sekuentziak errepikatuta daude.

### **HILEZKORTASUN ZELULARRA eta MINBIZIA:**

Zelulak modu desegokian zatitu → ez da funtzionala (tumore zelula, oraindik ez da txarra).

Zelula garatzen / inbaditzen / zatitzen jarraitzen badu eta beste ehun edo zelula batzuetara pasatzen hasten bada eta odola edo linfara heltzen bada, gorputzeo hainbat lekutara heldu daiteke → metastasia.

### **AGENTE KARTZINOGENOAK:**

Zelulak mutarazten eta minbizi zelula bihurtzen dituzten zelulak dira.

- Tabakoa → alkitran substantziak ADN .an aldaketak eragin (zigarro kopuru, denbora, hasitako adina) → alkitrana garbitu daiteke, mutazioak ez.

- Koipe ugari + barazki / fruta gutxiko dieta → digestioa geldotu → koloneko minbizia (herrialde garatuetan batez ere).
- Eguzkiaren erradiazio ultramorea → timina dimeroak sortu eta ADN -a eraldatu → azaleko minbizia sorrazazi.
- Birusak → zelula ostalariaren ADN -arekin elkartzean mutazioak eragin → uterkoko minbizia.
- Substantzia kimikoak → substantzia kimikoek ADN mutazioak eragin (Funbarri).

### **AGENTE KARTZINOGENOEN ERAGINA:**

Zelulak txarto zatitzen hasteko mutazio esanguratsu bat gertatu behar da. Zatiketa zelularra bideratzen duten geneak:

- Protoonkogeneak → zelularen hazkuntzaren kontrol mekanismoa erregulaten dute. Mutatzen badira, ez dute euren lana ondo burutzen → kontrol gabeko zatiketa → hazkuntza deskontrolatua sorrarazi. → Onkogene izena hartu.
- Gene tumore ezabatzaileak → txarto zatitutako zelulak detektatu + apoptositu. Gene hauek mutatzen badira, ez ditu tumore zelulak desegino eta garatzen jarraituko dute.
- Gene modulatzaileak → zelulak dagokien ehunean mantentzeaz arduratzen diren geneak dira. Mutatuz gero, zelula bakoitzak ez daki non kokatu (non dagoen bere lekua) eta beste ehin batzuk inbaditzen dituzte.

\*Hiru gene hauetako bat mutatuz gero, besteak honen atzetik etorriko dira, jarraian (efecto domino) → errazena protoonkogeneak mutatzeko da.

